

HARREMANAK HAUR HEZKUNTZAN

HARRERA ETA AGURRETAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Goitia Añorga, Ainhoa.

ZUZENDARIA: Duque Ingunza, Ainara.

2019

Laburpena

Gradu Amaierako Lan honek eskola batean Haur Hezkuntzan gauzatzen diren harremanen errealitatea islatzea du helburu. Horretarako, harreman ezberdin gehien elkarrekin gauzatzen diren egunerokotasuneko bi uneren behaketa burutu da, hots, harrera eta agurrena. Jakina da familia bakoitza eta eskola edo ikastola bakoitza ezberdinak direla, eta talde bere batean gauzatzen diren harremanak ere haien artean oso desberdinak izan daitezkeela. Hori horrela, Oñatiko Txantxiku Ikastolako urte bateko haurrekin behaketa bat burutu da, lehen zikloko haurrak eskolan uztea familientzat une zailena izaten baita. Horretarako, mundu pertsonalera jauzi egin eta 13 haur eta hauen familien eta irakasle tutorearen behaketa bat egin da, familien zein irakaslearen jarrerak jasotzea izanik lanaren helburua. Amaitzeko, ateratako emaitzekin eta teoriaren alderaketa eginez, Ikastolan dauden harremanak konfiantzazkoak izateaz gain, familien, haurren eta irakaslearen artean elkarlana eta harreman estua dagoela ikusi da.

Hitz gakoak: harremanak, Haur Hezkuntza, harrerak, agurrak.

Resumen

Este Trabajo de Fin de Grado tiene como objetivo reflejar la realidad de las relaciones que se desarrollan en una escuela en Educación Infantil. Para ello, se ha realizado la observación de dos momentos del día a día que más relaciones diferentes se llevan a cabo, es decir, la recepción y la despedida. Es sabido que cada familia y cada escuela o ikastola son diferentes y que las relaciones que se llevan a cabo en uno mismo pueden ser muy diferentes entre ellas. Así, se ha realizado una observación con los niños de un año de Txantxiku Ikastola de Oñati, ya que dejar a niños del primer ciclo en la escuela es el momento más difícil para las familias. Para ello, se ha realizado un salto al mundo personal y se ha realizado una observación de 13 niños, sus familias y de la tutora, con el objetivo de recoger las actitudes de las familias y del profesorado. Para terminar, con los resultados obtenidos y con la comparación de la teoría, se ha constatado que las relaciones existentes en la Ikastola son de confianza y que existe una estrecha colaboración y relación entre las familias, los niños y la profesora.

Palabras clave: relaciones, Educación Infantil, recepciones, despedidas.

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
1. MARKO TEORIKOA.....	5
1.1. HAUR HEZKUNTZA.....	5
1.2. HARREMANAK.....	6
1.2.1. FAMILIA ESKOLA HARREMANAK	8
1.2.2. FAMILIA - HAUR HARREMANA	14
1.2.3. IRAKASLE - HAUR HARREMANA	16
1.3. HARRERAK.....	21
1.3.1. ATXIKIMENDUA	23
1.4. AGURRAK.....	24
2. HELBURUAK.....	25
3. METODOA	26
3.1. Lagina	26
3.1.1. TXANTXIKU IKASTOLA.....	26
3.2. Instrumentua.....	27
3.3. Prozedura	27
4. EMAITZAK.....	28
4.1. HARRERAK.....	28
4.1.1. Irakasle-haur.....	28
4.1.2. Guraso edo aitona/amona - haur.....	30
4.1.3. Irakasle - guraso/aitona-amona	32
4.2. AGURRAK.....	34
4.2.1. Irakasle-haur.....	34
4.2.2. Guraso/aitona-amona – haur.....	35
4.2.3. Irakasle - guraso/aitona-amona	37
5. ONDORIOAK	38
6. BIBLIOGRAFIA:.....	42
ERANSKINAK.....	46
1. ERANSKINA: IKASTOLAREN ARGAZKIAK.....	46
2. ERANSKINA: METODOLOGIA BERRIAK ETA KONFIANTZAREN PEDAGOGIA.....	50
3. ERANSKINA: ERREGISTRO ORRIA.....	53

SARRERA

Jakina da gaur egun harremanek geroz eta garrantzia handiagoa dutela hezkuntza arloan, batez ere Haur Hezkuntzan. Beraz, eta eskola batean gauzatzen diren mota guztietako harremanak garrantzitsuak direnez, Ikastola batean harreman desberdin gehien ikusten diren bi momentu behatu dira, hots, harrerak eta agurrak. Honen bidez, irakasleek haurrekin duten harremana, familiekin dutena eta familiek haurrak eskolan uztean zein jasotzean izaten dituzten jarrerak ikusteko aukera izan da.

Horrez gain, zenbait metodologia berritzailek harreman horiek bultzatu edo indartzen dituzte, eta horietako bat da Ikastola honetan dagoen Konfiantzaren Pedagogiaren Metodologia. “Irakatsi eta ikasteko prozesua arrakastatsua izan dadin, aurretiaz eta ezinbestean bermatu beharreko baldintza da konfiantza” (Antero, 2015, 26 orr).

Pertsonalki, gai hau aukeratzearen arrazoia, betidanik pentsatu izan dudala harreman onak dauden toki batean askoz hobeto egoten dela izan da, hots, harreman onek giro ona sustatzen dutela eta hori hezkuntzan ea gertatzen den ikustea nahi nuen gertutik. Hau horrela, nire txikitako Ikastolan gaur egun zein nolako harremanak dauden ikustea nahi nuen eta horretarako, harrera eta agurraren uneak aztertu ditut, Haur Hezkuntzako egunerokotasunean gertatzen diren bi une izateaz gain, harreman mota ezberdin gehien elkarrekin ikusi daitezkeen uneak direlako.

Hori dela eta, lan honek Ikastola batean, harrera eta agurretan gauzatzen diren harremanak aztertu nahi ditu, modu honetan, irakasle eta haurren, familia eta haurren eta irakasle eta familien arteko harremanak jorratuz.

Jarraian, lan honen egituraren berri emango da, irakurleak jakin dezan zer-noiz topatuko duen. Lehenik eta behin, gaiaren justifikazio teorikoa egiteko eta harreman mota ezberdinez, harrerez eta agurrez informatzeko marko teorikoa dago. Bigarrenik, lan honekin lortu nahi izan diren helburuak zeintzuk izan diren daude zehaztua. Hirugarrenik, lan hau aurrera eramateko erabili den metodoaren nondik norakoak zeintzuk izan diren aipatuko da. Ondoren, eginiko ikerketan irten diren emaitzak egongo dira eta azkenik, lanaren ondorioak egongo dira, atera diren emaitzak teoriarekin alderatzeko. Jarraiki, txosten hau aurrera eramateko erabili diren erreferentzia bibliografikoak aurkituko dira eta lana eranskinekin amaituko da.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. HAUR HEZKUNTZA

Haur Hezkuntzako etapa, hilabete gutxi batzuk dituzten haurrekin hasi eta sei urte bete arteko haurretara iritsi arteko umeez osatzen dute, Lehen Hezkuntzara pasatzen diren unera arte, hain zuzen ere (Paniagua eta Palacios, 2005).

Eskola, populazioaren osotasuna denbora-bitarte oso zabal batean hartzen duen eta jarrera onuragarri batzuk modu graduatu eta sistematiko batean lantzen dituen toki bakarra da. Gainera, haurrak bizitzako lehenengo etapetatik hartzen dituzenez, hots, haien pertsonalitateak eratzen ari diren momentutik, une ezin hobea da haien garapen eta ikasketarako (Mir, Batle eta Hernández, 2009).

Haurraren heziketan helburu nagusietako bat umeari autonomia bereganatzen laguntzea da. Modu honetan, pertsona moduan autonomo izatera heldu eta bere kabuz izateko, egiteko eta erabakitzeko gai izan dadin. Helduek arreta jarriko diote bere garapen emozionala orekatua, egonkorra eta segurua izan dadin (Fabrés, 2006). Etapa honetako irakasleen tradizioan daude haurraren ongizatearekiko interesa, bere garapen motorrekiko kezka eta gizarteratzearen aurreko sentsibilitatea, besteak beste (Paniagua eta Palacios, 2005).

Haurrak pertsona eta gizarteko kide gisa garatzeko aukera izan behar du eta horretarako, pertsona gisa errespetatu behar dugu. Arreta pertsonal egonkorra, samurtasunez, konfiantzaz eta enpatiaz beteak izateko, ahalik eta arreta indibidualizatuena ziurtatu behar diogu. Haurrarentzat eragin handia izango du horrek, bere buruaren kontzientzia hartzeko, bere autonomia bermatzeko, nortasuna ziurtatzeko eta bizikidetzarako beharrezkoak diren gaitasun sozialak eskuratzeko balioko dio (Fabrés, 2006).

Bestalde, interakzioak Haur Hezkuntzan beharrezkoak dira, baina hauek aberasgarriak izan daitezen zenbait baldintza bete behar dituzte: maitasun eta segurtasun giro batean garatzea, erreferentziazko irakasle edo hezitzailearen edo hezitzaileen artean nolabaiteko egonkortasuna egotea, helduaren eta haurraren interakzio pertsonalizatuak egotea, berdinen arteko elkarlana indartzea helduak behatzailearen papera hartuz, eta beharrezkoa izanez gero interakzioak erregulatzea (Paniagua eta Palacios, 2005).

Beraz, garbi dago eskola funtzio asko dituen instituzio bat dela, sistema sozial global osoari edo bere azpisistema nabarmenei loturiko betebeharrak desberdinetan aritzen

da. Besteak beste, eskolak zaintza-eginkizuna du, gizarte urbanizatu baten eta familia nuklear baten testuinguruan emakumea etxebizitzetatik irteteko eta gazteak kaleetatik ateratzeko balio baitu (Enguita, 1990).

Nolanahi ere, egia da gizarte honetako kide askok hezkuntza bilakatzen dutela gizartean gertatzen diren gauza guztien errudun. Badirudi ez dagoela ezer erosoagorik gizarte batentzat, bere gaitzen errudun eskola bilakatzeko, modu honetan, beste erakunde batzuk, hala nola, enpresak eta Estatua errugabetuz (Enguita, 1990).

1.2. HARREMANAK

Nahiz eta askotan pentsatu eskoletan irakasleen eta haurren arteko harremana izaten dela garrantzitsuena, ez ditugu eskoletan gauzatzen diren gainontzeko harremanak baztertu behar, ezta garrantzirik kendu behar ere (Paniagua eta Palacios, 2005). Eskola pertsona sozial bezala hazteko toki ezin hobea da, komunikazio gaitasunak garatzeko, gainontzekoek ulertu ahal izateko espresatzen ikasteko, elkar banatzeko eta elkar bizitzeko. Hots, harremanik gabeko mundu bat imajinatzea ezinezkoa da jada Haur Hezkuntzan (Gallardo, 2015).

Lehenik eta behin, ezinbestekoa da familiek eskolan tokia izatea eta **irakasleek eta familiek** konfiantzan oinarritutako harreman bat izatea (Ormeneze, 2015), gurasoen parte hartzeak haurren errendimenduan eragiten baitu (Grañeras, Gil eta Díaz-Caneja, 2011). Jakina da gurasoen papera ere ez dela erreza, baina haurren heziketan parte hartzen duten pertsona garrantzitsuenak dira, eskolak ez baitu bakarrik hezten, gurasoekin lan egitea beharrezkoa da haurraren garapenerako (Ormeneze, 2015).

Baina hori horrela izan dadin, ezinbestekoa da **haurrek haien familiekin**, hots, guraso edo aitona-amonekin, besteak beste, harreman estua izatea. Haurra jaiotzen den momentutik familiarekin egoten denez, sozializazio prozesua familian hasten da eta eskolan hori osatu egiten da (Mir, Batle eta Hernández, 2009).

Eskola batean aurki daitekeen hirugarren harreman mota eta lehenago aipatu bezala jende askorentzat garrantzitsuena, irakasleen eta haurren arteko harremana da. **Haur irakasle harremanari** eutsiz, esan, haurrak familia girotik irten eta beste errealitate bat ezagutzen dutenean maitasuna sentitu behar dutela (García, 2012). Irakasleak haurren erreferenteak bilakatzen dira eta garrantzitsua da tratua ona izatea (Fabrés, 2006). Maisu-maistrek haurrei segurtasuna eta afektua eman behar diete (García, 2012).

Haurren arteko harremanari dagokionez, esan, sozializazioa bizi osoan zehar irauten duen prozesu edo prozesu multzo bat dela, baina ez beti eraginkortasun berarekin. Logikoa denez, hau handiagoa da, pertsonaren izaera, ezagutzak, adimena eta jarrerak ez daudenean horren formatuak (Enguita, 1990). Honek eskolaren papera funtsezko bihurtzen du, haurrak ia jaio berriak direnetik helduak egin arte hartzen dituelako (Paniagua eta Palacios, 2005).

Haurtzaroa, batik bat eta bizitzako gainontzeko etapak elkarbizitza giro batean, esperimendazio giro batean, ikaste eta garatze giro batean garatu behar dira, asmaketa eta akatsekin, autonomia pertsonal eta pertsonalitatearen garapenarekin, tolerantziarekin, gatazka eta konponbideekin. Honek egingo du gure txikiak desberdinak izaten ikastea, desberdintasunak ulertzea eta bakoitza bakarra dela onartzea (Gallardo, 2015).

Berdinen arteko harremanetan, denek hartzen dute eskolatze goiztiarraren balioa trebetasun sozialak ikasteko iturri gisa. Gainera, hazten doazen heinean, umeei beste batzuekiko interesa areagotzen dute; imitazioak, antzekotasunen kontrasteak eta ikaskideen arteko laguntzak mota guztietako ikaskuntza motorrak, kognitiboak eta hizkuntzakoak indartzen ditu, helduen esku-hartzeak baino eraginkorragoak zenbaitetan ere (Paniagua eta Palacios, 2005).

Aipatzekoa da eskoletan sortzen diren harreman sozialek ikastetxeak eginiko taldekatzeekin dutela lotura (Estévez, Martínez, eta Jiménez, 2009). Hau horrela, eskolako heziketa bigarren mailako sozializazio bezala ezagutzen da, lehen mailakoak familian du lekua eta (Enguita, 1990). Hortaz, eskolak haurretan harremanak izateko gaitasuna sustatu behar du, pertsona helduekin eta beste haurrekin harreman afektibo sendo eta seguruak izan ditzaten entzun, ulertu, toleratu, elkarreragin, lagundu, kooperatu eta partekatu egin behar dute (Fabres, 2006).

Azkeneko harreman motari eutsiz, hots, **irakasleen arteko harremanari** dagokionez, ezin da ukatu antolakuntza baten barruan dagoen faktorerik garrantzitsuenetariko bat bertako kideak direla, hauek mantentzen dituzten interakzioen bidez, komunikazio sistema bat eta harreman sare bat (formala, zein informala) eraikitzen dute. Erakundeko kideek eratzen dituzten harreman interpersonalek, ezartzen duten komunikazio-sistemak eta horien artean sortzen den kohesioak neurri batean laneko asebetetze mailan eragingo du. Eta esan daiteke, elkarrekintza horiek direla eskolako klimaren funtsa. Ikastetxeek badakite pertsonen arteko harremanek zer-

nolako garrantzia duten, bai eta hauek ikastetxearen funtzionamenduan eta antolamenduan izan ditzaketen ondorioak ere. Nabaria da, lan guztietan bezala, ikastetxe batean ere lan giroa geroz eta atseginagoa izan, hots, lankideekiko harremana eta nagusiekiko, besteak beste, gusturago egingo dutela lan pertsonak (Benito, 2006).

Hori horrela, esan daiteke eskoletan bost harreman mota ezberdin nabarmentzen direla, baina lan honetan soilik eskolako harrera eta agurretan gauzatzen diren harremanak aztertuko direnez, irakasleek haurrekin duten harremana, familiek haurrekin dutena eta irakasle eta familien arteko harremanak aztertu eta landuko dira, hots, hiru harreman mota ezberdin.

1.2.1. FAMILIA ESKOLA HARREMANAK

Haur Hezkuntzako gela harremanak izateko tokia dela kontuan hartuz (Gallardo, 2015) beharrezkoa da, eskolek familiei garrantzia ematea eta hauekin harremantzea. Horretarako, lehenik eta behin ezinbestekoa da eskolak kanpora zabaldu eta familiak ezagutzea. Iraganean gurasoen parte hartzea eskolan txikia izan bada ere, ez dugu ahaztu behar familia haurren garapenerako funtsezkoa dela eta eskolak horren euskarri moduan jardun behar du (Ormeneze, 2015).

Familia giro egoki eta afektibo batek modu positibo batean laguntzen dio haurrari eskolan ongi eta gustura egoten. Haurrak eskolan esperimendatzen dituen zailtasunei aurre egitea askoz errazagoa da etxean familia giro egokia mantentzen bada, beste modu batean esanda, errazagoa da zailtasunei aurre egitea gurasoek eta irakasleek batera lan egiten dutenean. Berdina gertatzen da alderantziz ere, afekturik gabeko familia giro batek, haien harremanetan zailtasunak dituenak eta gaizki estrukturatuta dagoenak, sozialki eta ekonomikoki, haurraren eskola jarduera okertzea bultzatzen du. Hau horrela, ezinbestekoa da familien parte hartzea eskolan, haurrek haien guraso edo tutoreak haien bizitzan gertatzen ari dena gertutik jarraitzen dutela ikusten badute lasaiago sentitzen dira (Ormeneze, 2015).

Gainera, jakina da familiek eskolatik irakasleekin izaten dutela harreman estuena, beraz, familia eskola harremana, irakasleek familiekin duten harreman bezala ere definitu daiteke kasu askotan (Paniagua eta Palacios, 2005).

Ildo beretik, esan, haurren familiek eta komunitateek eskolan izaten duten parte hartzeak haurraren errendimenduan eragiten duela, harreman honek, eskolaren eta etxearen arteko koordinazioa hobetzen laguntzen baitu eta, aldi berean, ikastetxeak dituen baliabideak biderkatu. Faktore hori bereziki onuragarria da gutxiengoen eta

ezgaitasunak dituzten ikasleen ikasketa-errendimenduan. Era berean, familiaren eta komunitatearen inplikazioak ikastetxearen barruko harremanak eraldatzen ere laguntzen du, genero-rolen interpretazio alternatiboak sustatuz, eta horrek, aldi berean, emaitza akademiko hobekiak lortzearen eta haurren artean berdintasun-harremanak ezartzearen bidez desberdintasunak gainditzeko laguntzen du (Grañeras, Gil eta Díaz-Caneja, 2011).

Bestalde, aipatzekoa da, nahiz eta familiek gero eta joera handiagoa izan ikastetxeari haurren heziketaren erantzukizun guztia emateko (Bolívar, 2006), eskolak ez duela bakarrik hezten, familiak du paper garrantzitsua hor, horregatik, ez dugu ahaztu behar familia eta eskola ez direla sistema independenteak, eskolak ez ditu hezten haurrak familiengandik urrun. Heztea, familian edo eskolan, jardura konplexua da. Funtsezkoa da, beraz, familiaren eta Haur Hezkuntzako instituzioaren artean ahalik eta harreman koherenteena eraikitzea (Ormeneze, 2015).

Halaber, umearen familiaren parte hartzeak eskolako jardueretan, eskola orduetan edo hauetatik kanpo, baliabide bereziki baliotsua da haur guztiek eskolan arrakasta izan dezaten eta Europan gizarte-kohesioa indartzeko ere bai (Grañeras, Gil eta Díaz-Caneja, 2011). Nolanahi ere, nahiz eta gurasoen parte hartzeak haurren ikasketa prozesuetan arrakasta lortzen laguntzen duen guraso guztiek ez dute haien seme-alaben hezkuntza prozesuan parte hartzen (González-Pienda eta Núñez, 2005).

Maisu-maistra ona izatea erreza ez bada ere, aitortu beharra dago gurasoen papera ere ez dela batere erreza. Ez da existitzen modu bakar eta egoki bat guraso izateko. Esaterako, badaude guraso batzuk haien seme-alabei maitasuna muxuen bidez erakusten dietenak, aldiz, beste guraso batzuk ez dituzte muxurik ematen, hori ez da txarra, familia bakoitzak bere hezteko modua baitu. Baina, horrek ez du esan nahi dena onartu behar denik, ez dago esan beharrik biolentzia, besteak beste, kasu guztietan inondik inola ere ezin dela onartu. Garbi izan behar dugu, guraso eta seme-alaben arteko harremanetan ezinbestekoa dela errespetua eta kontsiderazioa bermatzea (Paniagua eta Palacios, 2005).

Bestalde, irakasleek ongi baloratzen dituzte eskolan parte hartzen duten gurasoak. Gurasoentzako gonbiteak motibazio iturri garrantzitsua izan ohi dira, inplikazio horiek irakasleek begi onez ikusten dituzte eta. Gonbidapen hori ikastetxean bertan sor daiteke, edo irakasleen ekimena izan daiteke. Familien aldetik, jakina, partaidetza hori zehazten duten ingurumen-eragileak daude, hala nola: baldintza sozioekonomikoak, ikasketa-maila, denbora, motibazioa eta konpromisoa, seme edo alabaren ikasketekiko,

familia-kulturarekiko, etab. Zoritxarrez, egoera sozioekonomiko arazotsuetan, zeinak, gurasoen inplikazio handiagoa eskatzen dutenak diren, parte hartze hori ez da egoten (Bolívar, 2006).

Dena den, egia da hezitzaile askorentzat desafio handienetako bat izaten dela gurasoen parte-hartzea. Irakasleek, gurasoen parte-hartze modu batzuk hartu izan dituzte aintzat betidanik, besteak beste, bilera edo elkarrizketetara, atek zabaltzeko egunetara, eskolako kontzertuetara joatea, guraso-elkarteetan parte hartzea, eta boluntario-lana egitea irakasleei eskolan laguntzeko edo haien seme-alaben ikastaldeen irteeretan haiekin joateko (Coelho, 2016).

Horretaz aparte, gurasoen heziketak haurraren gain lehenera eragina izateaz gain, adierazgarriena izango da gurasoek haurrak tratatzen dituzten modua eta umek hezten dituzten modua erakusten dutelako (Mir, Batle eta Hernández, 2009). Hau horrela, eta irakasleek haur berdinekin ordu asko pasatzen dituztenez, haurren beharrezko beharrak betetzen diren behatzeko aukera izaten dute eta honen bidez, askotan gurasoek irakasleei transmititzen ez dieten informazioa eskuratzeko aukera izaten dute irakasleek (Paniagua eta Palacios, 2005).

Gurasoen parte hartzeari erreferentzia eginez gero, 1978ko konstituzioan, konkretuki 27. artikuluan lehenengo erreferentzia legal bat aurkitzen da gurasoen bi parte hartze mailen inguruan hitz eginez. Ondoren, lege organikoak (1985eko LODE, 1990eko LOGSE eta 1995eko LOPEG) etorri ziren eta hauek parte hartze hau garatu zuten. Geroago, 2002ko LOCE-k egoera erreformatu zuen, eskola kontseilua eta bere osaketa eta esleipenak adieraziz (Sarramona, 2004).

Denboran zehar eskola familia harremanek duten zentzua eta planteamenduak eboluzionatuz joan dira, pixkanaka koherentzia hartuz. Bi hauen arteko lankidetzak hau 0-6 etapako hezkuntza-kalitatea definitzen duen ardatzetako bat bihurtzeaz gain, lehenago aipatu bezala erroka garrantzitsuenetariko bat ere bada. Gurasoek Haur Hezkuntzako ikastetxe baten hezkuntza-planteamenduan parte hartzea hezkuntza-ekintzaren eraginkortasunaren bermea da. Familia eta eskola dira haurren garapena osasungarria, fisikoki, psikikoki eta emozionalki izaten laguntzen duten testuinguruak (Mir, Batle eta Hernández, 2009).

Nabaria da umek bere lehen lotura afektiboak ezartzen dituzten testuingurua izaterakoan familiek funtsezko papera jokatzea, hurrek familian ikasten dituzte lehen gauzak eta munduaren zentzua hartzen hasten dira bertan. Egia da ere, laguntzako

familiaren (aitona-amonak, ondokoak...) presentzia murrizten joan dela, zenbait aldaketa soziokultural direla eta, besteak beste, familia ereduen aldaketa, emakumearen sarrera lan munduan, amatasunaren adinaren atzerapena eta bizi-itxaropenaren gehikuntza. Eta orain kontzientzia sozial handiagoa dago lehen haurtzaroaren heziketa tradizioan egiten zenarekin alderatuz modu ezberdinean egin behar dela (Mir, Batle eta Hernández, 2009).

Hau horrela, beste arrazoi batzuen artean, familiek haurrak izaten dituztenen, harrera testuinguruak eta egoera antzekoan dauden beste familia batzuk bilatzen dituzte, elkarbanatzeko, hitz egiteko eta galderak egiteko, besteak beste (Mir, Batle eta Hernández, 2009). Familien partaidetza ezinbestekoa da eskolan uneoro, baina, arazoak handitzen direnean eta eskolak bakarrik ezin dienean aurre egin, inoiz baino gehiago familien eta ikastetxearen arteko elkarlana ezinbestekoa da (Bolívar, 2006). Eskolak gurasoen parte hartzearekin lortuko dituen emaitzak askoz hobekak direnez, Europar Batasunak gurasoen parte hartzea kalitatearen adierazgarrietako bat bezala kontsideratu du (Sarramona, 2004).

Laburbilduz, nahiz eta familien parte hartzea eskolan batzuetan zaila izan, haurren garapen egokirako beharrezkoa eta ia ezinbestekoa da familiek eta eskolek elkarrekin lan egitea, bi hauen arteko elkarlanak lortuko baitu haurraren garapen egokirako bidea egitea.

1.2.1.1. FAMILIA EREDUAK

Oro har, gizakia "familia" izeneko gizarte-taldearen barruan bizi eta garatzen da. Familiak oinarrizko hiru eginkizun bete behar ditu: funtzio ekonomikoa, biologikoa eta hezkuntza, kultura eta espirituala. Horixe da, hain zuzen ere, familiaren funtzionamendua baloratzeko erabiltzen den adierazleetako bat; familia gai da bere kideen oinarrizko beharrezko materialak eta espiritualak asetzeko, laguntza-sistema gisa jardunez. Hala ere, familiaren funtzionamenduaren azterketa egiteko, beharrezkotzat jotzen da ikuspegi sistemiko batekin ikustea; izan ere, familia talde edo sistema bat da, bere kideez, azpisistemez, osatua. Familia sistema gisa pentsatzeak esan nahi du unitate bat dela, osotasun bat (Herrera, 1997).

Iraganean, familia kontzeptuari zenbait funtzio ezartzen zitzaizkion: erreproduzitzea, babesa ematea, heztea, sinesmenen transmisioa egitea eta hezkuntza erlijioso ematea. Emakumea XX.mendean ondo sartu arte etxearen zaintzarekin eta

familiarekin lotzen zen soilik. Gizonak, aldiz, etxea aurrera eraman ahal izateko dirua eraman behar zuen etxera. Baina gizartean aldaketa azeleratuak gertatzen direnean, egoera berri bat sortzen da, eta horrek eragina du familiaren bizitzan. Aldaketa horietatik honako hauek nabarmentzen dira: lehenik eta behin, familia mailari dagokionez, beherakada handiak egon dira ugalkortasunean, besteak beste, sexu-harremanak liberalizatu direlako, ezkontzatik kanpo ugalkortasuna handitu delako, ezkontzaren adinean atzerapena egon delako (27-30 urte), antisorgailuak erabiltzen direlako, lehen haurra jaiotzean atzerapena egon delako (27-35 urte), seme-alabek etxea uztea atzeratu delako, ezkongabeen proportzioa handitu delako, lotura libreen gehikuntza egon delako eta senar-emazteen hausturak handitu direlako. Bigarrenik, mentalitate mailan, senar-emazteen eta gurasoen familia-erantzukizunei dagokienez, genero-ikuspegia hautsi egin da eta orain, modu desberdinean ulertzen da emakumeek etxean eta lanean duten papera (Valdivia, 2008).

Honekin jarraituz eta gizartean jasan ditugun aldaketa guzti horien ondorioz, familia kasu askotan aita, ama eta seme-alaba biologikoen osaeratik urruntzen da (Mir, Batle eta Hernández, 2009). Hona hemen familia eredu mota desberdinak bereizteko Agudok (2010) eginiko sailkapena:

1. Familia hedatu edo konplexuak
2. Familia nuklear funtzionala
3. Guraso bakarreko familiak
4. Izatezko bikoteak
5. Seme-alabarik gabeko guneak
6. Pertsona bakarreko guneak
7. Familia berreraikiak
8. Adopzio-familiak
9. Harrera-familiak
10. Familia homoparentalak, sexu bereko pertsonez osatua
11. Ugalketa lagunduaren bidez jaiotako umeen familiak:
intseminazioa, in vitro ernalketa
12. Subrogazioaren bidez sortutako familiak
13. Etorकिन familia aniztasuna

Jaiotza kontrolatzeko metodoek eta batez ere mentalitate aldaketek, aukera ematen dute beste familia mota bat eratzeko. Eredu berriek, helduak eta haurrak

inguratzen dituzten egoera ezberdinak erakusten dituzte (Valdivia, 2008). Honi lotuta, esan, izugarritzko joera dagoela negatibo edo problematiko bezala identifikatzeko familia eredu tradizionaletik urruntzen diren familia ereduak, baina, frogatuta dago haurraren garapenari dagokionez, garrantzitsuena ez dela haurra hezten den familia eredu, baizik eta familian garatzen diren harreman eta interakzioak (Paniagua eta Palacios, 2005).

Eskolak, orokorrean, eta irakasleek batik bat, garbi izan behar dute familia bakoitza bakarra dela, familia bakoitzaren atzean dagoena ezagutzea ezinbestekoa da. Irakasleak ikasle talde berri batekin lanean hasten direnean, haien ezaugarri nagusiak ezagutzeko beharra izaten dute hainbat arlotan, besteak beste: arlo emozional-afektiboan, intelektualean, harremanak izateko eran eta arlo akademikoan. Baina, hezkuntzaren eremuan beharrezkoa da testuinguru soziala ezagutzea, eta testuinguru horretan umearen familia da elementu garrantzitsuena. Beste era batera esanda, irakasleak ikasgelan dituen hurrez gain, hauen familiak ezagutu behar ditu, hots, nola dagoen egituratuta eta zein familia eredu den. Gainera, aipatzekoa da nahiz eta familia ereduen aniztasunaren iraultza errealitate nabarmena izan, sarri eguneroko bilakaeran ez dugula aipatzen, ezta kontuan hartzen ere (Aguado, 2010).

Ondorioz, guraso kopurua handitzea, guraso bakarreko familia osatzea erabakitzen duten emakumeen kopurua handitzea, familiak seme-alabentzako baldintza penagarrietan berreraikitzea, asteburuko seme-alabak, anai-arrebak, guraso ezberdinen seme-alabak, elkarrekin bizi behar dutenak, elkar ezagutzen ez duten anai-arrebak, seme-alabentzat frustrazio-egoera horiek orekatzen saiatzen diren gurasoak, gehiegizko babesleak eta kontsekuenteak ez direnak, guraso askoren asegabatasuna seme-alabek maiz menperatzen dituztelako, etab. bezalako egoerak aurki ditzakegu. Familiaren egoera kritiko horrek familia demokratiko eta aberatsago bat sortzen du apurka-apurka, baina, hala ere, oraindik ere zailtasunak izaten dira emakumearen etxetik kanpoko lanarekin eta gizonengan aldaketarik nabaritzen ez den frustrazioa ere badago. Aldaketak erronka berri bat dira, hortaz, harreman pertsonaletan eta familia demokratikoago batean hobekuntza ekarriko du (Valdivia, 2008).

Hau horrela, irakasle edo hezitzaile batek ez ditu aurreiritzirik izan behar, ez eta familia idealaren errepresentaziorik egin behar, familia eredu horretatik kanpo dagoen haurra ezberdin sentitu daiteke eta. Desberdintasunak zerbait ohiko bezala sartu behar dira egunerokotasuneko elkarrizketetan eta eginbeharretan. Egia da hau beti ez dela erreza, familia harreman batzuk zehazteko izenak ez ditugulako, esaterako, nola azaldu

haur baten egoera, non bere bila bere ama eta bere amaren bikotea (bere aita ez) datorren. Halaber, aipatzekoa da guraso guztiek ez dutela haien familia egoera zein den azaltzen eskoletan. Hauek izaten dira eskoletan aurki daitezkeen adibide ohiko batzuk: banantzen ari den bikotea edo, ama homoparental bat dela esaten duen emakume homosexuala. Baina, horrelakoak ezin dira ekidin, batzuentzat datu horiek oso pribatuak baitira. Hau horrela, oso ohikoa izaten da gelan irakasleek uste dutena baino dibertsitate gehiago izatea (Paniagua eta Palacios, 2005).

Honenbestez, familia bakoitza ezberdina da ez soilik honen ereduagatik, baita bakoitzaren barruko funtzionamenduagatik, hauen harreman eta interakzioen moduagatik. Gainera, familia bat ez da beste baten ezberdina soilik, familia beraren barruan seme-alaba zaharrenarekin dagoen harremanak eta ondorengoarekin dagoena ezberdina dira, guraso guztiek ez baitakite demokratikoki jokutzen (Paniagua eta Palacios, 2005).

1.2.2. FAMILIA - HAUR HARREMANA

Haur baten heziketa umea jaiotzen den momentutik hasten da, eta haurra handitzen doan heinean bere gurasoen mezu asko barneratzen joaten da, ondoren beste heldu garrantzitsu batzuen ere bai, hau horrela, gurasoak haurren lehen irakasleak direla esan daiteke (Olshaker, 1993). Hortaz, sozializazio prozesua familian hasten da eta eskolan osatzen da. Lehenengo haurtzaroa sozializaziorako etapa egokiena da, haurrak bere nortasun soziala eta pertsonala eskuratzen dituen etapa baita (Mir, Batle eta Hernández, 2009).

Askotan entzuten da haurrek izaten dituzten arazo guztien errudunak gurasoak direla. Ohikoa izaten da guraso askok gaizki pasatzea seme-alaben akatsak bere erruz izaten direla pentsatzen dutelako. Baina, kontrakoa pentsatzen duten pertsonak ere aurki ditzakegu, hots, gurasoak ez direla inondik inora ere seme-alaben bizitzan gertatzen ari denaren erantzule uste dutenak. Hauentzat, beti da eskolaren errua, auzoko umeena edo telebistaren efektua (Olshaker, 1993).

Bestalde, gurasoek haien seme-alaben premiei erantzuten diete, baina gehien kontuan hartzen diren beharrak behar biologikoak eta zaintza fisikoa izaten dira (janaria, garbiketa, zita medikoak, etab.). Nahiz eta psikologigoki zaintza biologikoa izan bizitzako lehenengo urteko ezaugarria, gurasoek hau denboran zehar luzatzen dute, baina zaintza biologikoa ezin da bihurtu gurasoak “guraso” direla adierazteko modua (Maioli, 2006).

Garbi dago, lehenago esan bezala, guraso izatea ez dela batere erreza, gurasoek ezetz esaten jakin behar dute lau urteko seme edo alabak jostailu bat erostea nahi duenean, hamar urteko haurrak gauean telebista ikustea nahi duenean edo nerabeak etxeko arau guztiak aldatu nahi dituztenean. Guraso asko daude haien seme-alabak haien alde edukitzeagatik guraso papera alde batera uztera iristen direnak eta kontuan izan behar dugu guraso onak izateko prest egon behar dela noizean behin seme-alaben aurrean “popularrak” ez izateko. Beste modu batera esanda, gurasoek ezin dute lortu haurrek haien egin beharrak beti pozez txoratzen egitea, baina, haurretan sortzen den tristura horrek ezin die gurasoei haien bete beharrak alde batera uztea egin (Olshaker, 1993).

Jakina da gaur egun haurren zaintzaz ez direla soilik gurasoak arduratzen, aitona-amonek ere askotan paper garrantzitsua izaten dute hor (Triadó eta Villar, 2000). Azken urteotan gure gizarteak aldaketa handiak jasan ditu, emakumea lan-bizitzan sartzea eta ezkontza-ereduetako aldaketak egon dira, besteak beste. Aldaketa sozial horiek, umeei zaintza ematen dieten zerbitzu formal mugatuak izatearekin batera, aitona-amona ugari ekarri dituzte. Biloben hazkuntzan eta hezkuntzan inplikaturik daude, eta, horrela, sostengu emozional eta ekonomikoko funtsezko figura bihurtzen dira gaur egungo familientzat (Noriega eta Velasco, 2013).

Aitona-amonak, oro har, bilobekin oso lotuta sentitzen dira. Aitona-amonen eta biloben arteko harremanean, lehenengok gutxienez, hauekiko duten hurbiltasun emozionala nabarmentzen dute, zerbitzu trukaketa edo laguntzaren aurretik (Triadó eta Villar, 2000). Gainera, bizi itxaropena handitzeak aitona-amonak, hauen rola urte askotan zehar luzatzea dakar. Beraz, heterogeneotasun handia dago aitona-amonen rolean, lanean ari diren aitona-amonak aurki ditzakegu, beste batzuk jubilaturik dauden bitartean. Horrekin batera, bilobak zaintzen oso inplikaturik dauden aitona-amonak aurki daitezke, bilobekin ia kontakturik ez duten beste batzuk, 40 urte dituztenak eta 100 urteak gainditzen dituzten beste batzuk (Noriega eta Velasco, 2013).

1.2.2.1. GURASOEN NAHIAK

Gaur egun gurasoek haien seme-alabentzako nahi duten hezkuntza sistema, europarrarekin konpetentea den sistema da. Guraso gehienak haien seme-alabak eskola porrota jasatearen beldur dira. Orobat, metodologiak oso mekanikoak direla esaten dute, eta metodologia berritzaileen alde egiten dute apustu (Hernández eta Lopez, 2006).

Alde batetik, familien gehiengo bat bere seme-alaben eguneroko heziketan gutxi nahasten dira baina aldi berean interes sakona erakusten dute umeei etorkizunari begira heziketa on bat jaso dezaten. Eta argi dute haien seme-alaben hezkuntza dela etorkizunean bidea irekitzeko bide bakarra. Hau horrela, haien umeen eskola-arazoak larritasun gehiagorekin bizitzen dituzte. Beste alde batetik, guraso batzuek haien seme-alabak heztea nahi izaten dute baina ez dakite eta ezin dute. Modu honetan, ohikoa izaten da guraso hauek ezintasunaren eta desorientazioaren sentsazioa izatea haien seme-alabak hezteko moduari dagokionez, batez ere, nerabezaroan (González-Pienda eta Núñez, 2005).

Hau horrela, orain eskola publiko edo pribatuaren arteko eztabaida ez da ideologikoa soilik. Lehen, eskola publikoan gertatzen zen sozializazio desberdina zela pentsatzen zen, integratzaileagoa. Orain, aldiz, kudeaketa moduaren eraginkortasunak sistema publikoa deszentralizatzea derrigortzen du (Bolívar, 2006).

1.2.3. IRAKASLE - HAUR HARREMANA

Nahiz eta familiak haurren sozializazioan paper garrantzitsu bat izan, eskolak ere izugarritzko garrantzia du hor, eskola familiaren erdi bidean kokatzen dela esan dezakegu (Enguita, 1990) eta bertan irakasleek izugarritzko garrantzia izaten dute, azken finean hauek haurren beste erreferente batzuk bilakatzen dira (Paniagua eta Palacios, 2005).

Eskolaurreko etapan hurrek maitasuna sentitu behar dute. Bizitzan lehen aldiz hurrak familia girotik irteten dira beste errealitate guztiz ezberdin bati aurre egiteko. Etxetik kanpoko lehen sozializazio moduak eskolan gertatzen dira. Bada zentzumenak pizteko eta bizitza esploratzeko unea eta honek, gizaki sentibera eta sortzaileak eratzea ekarriko du (García, 2012).

Irakasleek hurrekin duten harremanari dagokionez, ez dugu ahaztu behar irakasleak haurren erreferenteak direla, beraz, garrantzitsua da zein nolako tratua egoten den. Irakasleek hurrak errespetuz, arretaz eta konprentzioz tratatuz gero, hurrek ere haien ikaskide zein gizartearekin errespetuzko, konfiantzazko eta konprentziozko harremanak izan ditzakete (Fabrés, 2006). Gainera, Haur Hezkuntzako irakasleek, kortesia, errespetua, gogoia, zintzotasuna, adimena eta motibazioa izan beharko lukete (Morrison, 2005).

Haur txikiek ongizatea lortzeko, askatasuna, afektibitatea, zaintza fisikoak eta zaintza psikologikoak izateko eskubidea dute. Haurrek badakite beren kabuz nola hazi eta nola ikasi; mugitzeko askatasuna behar dute, osasuntsu hazteko; haur bakoitzak bere erritmoa du. Irakasleek haurtxoen gabeziei erreparatu beharrean, hauen gaitasunei erreparatu behar diete, baikortasunez eta lasaitasunez (Buldain, 2013).

Baina batzuetan irakasleek ere denbora falta izaten dute haur guztiei behar duten tratua eskaintzeko. Maisu-maistrak normalean, talde bakoitzeko haurrentzat eguneroko jarduerak programatzeko gai izaten dira: ur jolasak, jolas heuristikoa, etab. Baina, aldiz, askotan ez dira gai izaten une horiek pentsatzeko, organizatzeko, programatzeko edo antolatzeko. Jarduera hauek haurrekin harreman epelak eta afektiboak ezartzeko, haien parte-hartzea eta lankidetzak sustatzeko eta elkar hobeto ezagutzeko aprobetxatu daitezkeela ahazten zaie zenbait irakasleri. Une hauek maisu-maistraren eta haurren arteko harremanak sendotzeko ez aprobetxatzeak eta helburu horretarako beste jarduera batzuk bilatzeak, presa sentimendua sortzen du, ez gozatzea jada batera egoten diren uneez. Askotan irakasleak azken helburuez kezkatzen dira, haurrak eskuratu behar dituen gaitasunei garrantzia emanaz, baina ez prozesuan egindako bidez. Garrantzitsuena haur bakoitza bere gaitasunei erreparatuz nola ari den eboluzionatzen behatzea da (Fabrés, 2006).

Eskoletan, maisu-maistrek segurtasuna eman behar diete hurrei, afektuarekin. Gaur egun oso adierazgarria da bere ikasleei laztantzearen beldur diren irakasleak egotea, modu honetan, pertsonaren garapenean komunikazio forma hain natural eta ezinbesteko bat saihestuz, hots, laztana, zeina estimulazio forma bat soilik den. Zoritxarrez irakasle horiek afektua espresatzeko dituzten forma naturalak erreprimitu dituzte, komunikabidetan agertzen diren abusu kasuak direla eta. Baina, haurrekiko abusu edo tratu txar horiek kasu gehienetan familian gertatzen dira eta maisu-maistrak behatzaileak direnez, familia batean haur batek jaso ditzaken tratu txarrak detektatu ditzaketen lehenak dira (García, 2012).

Edozein modutan ere, batzuetan kanpo faktoreak direla eta oso zaila izaten da haurrek eskolan erreferente bakarra izatea. Esan daiteke, eskolak eskaintzen duen aberastasun sozialak aberatsa izateari uzten diola, haurrak, batez ere txikienak, esku askoren artean pasatzen direnean. Erakunde horrek ezin du erreferentzia egonkorrik eskaini etengabeko txandak, bajak eta aldaketak daudenean, haur guztiak denenak eta inorenak izatera pasatzen direnean. Une horretan, haurrentzat aberasgarria ez den

egoera gertatzen da, zeina kasu batzuetan kaltegarria ere izan daitekeen. Hortaz, haurrek eskolan erreferentziazko pertsona bat edo batzuk izatea ezinbestekoa da (Paniagua eta Palacios, 2005).

Irakaslearen jarrera, haurri bere garapenean laguntzen dion hezitzaile moduan honakoa izan beharko litzateke: haurren eskariak entzutea eta segurtasuna ematen dioten erantzun egokiak ematea; hitz egitea, egitera doazena hitz argi eta laburrak erabiliz komunikatzea, parte hartzea eskatuz eta ez inposatuz; haurri begiratzea, erne dagoela erakustea, bera kontuan hartzen duela ikusi dezan; haurra esku samur eta begirunetsuekin, ez zakartasunarekin, hartzea eta ez tratatzea objektu moduan; eta azkenik, parte-hartzeko, erantzuteko eta egiteko behar duen besteko denbora errespetatzea, umearen denbora helduenaren desberdina da eta (Fabrés, 2006).

Beste alde batetik, esan, Haur Hezkuntzako etapa osoan zehar, ikasgelaren eta jardueren antolaketak interakzio pertsonalizatu horiek indartu behar dituela. Txikienek oraindik helduen behar handia dute eta handienek bakarkako onarpen momentuak, gertuagoko kontaktua eta helduaren esku-hartzearen doikuntza pertsonalizatuagoa behar dute (Paniagua eta Palacios, 2005). Irakasleek formazio liderraren papera hartzen dute. Maisu-maistrak beti izan dira klasearen eta programaren arduradun, baina, paper hau orain gehiago nabarmentzen da oso paper garrantzitsua egiten dutelako. Irakasleek ikasleek ikas dezaten, ikasi beharrekua planifikatzen dute, gidari lanak egin, ikasitakoa ebaluatu eta ikasgelako giroa egokitzen dute (Morrison, 2005).

Hots, nahiz eta irakasleek askotan ez duten denborarik izaten gela osatzen duten haur guztiak banan banan ezagutu eta hauen beharrak detektatzeko, ezin dugu ukatu irakaslearen paperak garrantzi handia izaten duela haurren bizitzan, haien erreferente bilakatzen direlako. Beraz, beharrezkoa da irakasleek haur bakoitza ezagutu eta hauen beharrak detektatu eta asetzen jakitea (Paniagua eta Palacios, 2005).

1.2.3.1. HEZKIDETZA

Ez dago esan beharrik eskolan, gehienetan, gizartean dagoen egoera islatzen dela eta nahiko garbi ikus dezakegu irakaskuntzaren edukia bereziki maskulinoa dela gizarte honetan gizonak normalean emakumeen gainetik egoten direlako. Oraindik ohikoa izaten da testu liburuetan emakumeak etxeko lanetan edo lan <femeninoetan> lanean agertzea edo ilustrazioetan modelo diskriminatzaileak agertzea. Beste disziplina batzuek ere ez diete emakumei oso erreza jartzen, esaterako, gure gazteek eskoletan filosofia ikasten dute, baina nor oroitzen da emakumea izan den filosofo batekin?

Gazteek Kant ikasten dute, eta honek gizonaren teoria sortu zuen, hain zuzen ere (Enguita, 1990).

Haurren arteko banaketei edo taldeei erreparatuz gero, ohikoa izaten da neskak eta mutilak bereiztea, gizarteak horrela egiten duelako edo tradizioz egin izan den zerbait delako, guztiok gogoan ditugu neskak eta mutilak eskola desberdinetan bereizten zituzten segregazio eskolak. Generoarekin lotutako zenbait jokaera txikitatik agertzen badira ere, Haur Hezkuntzaren amaieran ikusten da nesken jarrera femeninoagoa izaten dela eta mutilena, aldiz, maskulinoagoa (Paniagua eta Palacios, 2005).

Baina ez da nahikoa neskak eta mutilak gela berdin baten jartzea, eskolaren lana da aukera berdinak eskaintzea guztiei, esaterako, neskek futbolean jolastea, mutilek panpinekin jolastea, gelan taldekatzeak egiterakoan talde mistoak osatzera bultzatzea, etab. Horrek ez du esan nahi, planteamentu sexistak gurasoek soilik egiten dituztela, eskolan txikitatik helduek nahi gabe desberdintasunak egiten dituzte neska edo mutilen tratuan. Honi lotuta, ez dugu alde batera utzi behar batez ere Haur Hezkuntzako ia irakasle gehienak emakumeak direla, hau ez da egoera aberasgarriena umeei eredu helduak proposatzeko orduan (Paniagua eta Palacios, 2005).

1.2.3.2. ESKOLA INKLUSIBOA

Behin baino gehiagotan entzun izan dugu hezkuntzan beharrezkoak direla eskolak inklusiboak izatea, baina zer dira eskola inklusiboak? hona hemen eskola inklusiboaren esparruan Aniztasunari erantzuteko plan estrategikoan agertzen den definizioa: “Haur eta gazte guztiek hezkuntza jasoko dutela bermatzen du eskola inklusiboak; ez, ordea, edozein hezkuntza, kalitatezko hezkuntza baizik, guztiei aukera berak emango dizkiena” (Ainscow, Booth eta Dysonena, eta Echeita eta Dukena In Celaá 2012, 11 orr).

Gizarteari begiratzuz, ikus dezakegu eskolaratze baldintzak ez direla berdinak guztientzat:

La escuela presenta la apariencia de un sistema único con forma piramidal. En la base entran todos, pero a lo largo del proceso escolar van siendo objeto de sucesivas selecciones que hacen que, a los niveles más altos, llegue sólo una minoría: son muchos los llamados, pero pocos los elegidos. Puesto que, en el inicio, todos siguen los mismos programas, tienen profesores con la misma titulación y pasan por los mismos procedimientos de evaluación, la selección escolar parece ser cuestión, exclusivamente, de sus distintas capacidades, esfuerzos o vocaciones. (Enguita, 1990, 49 orr)

Hori ez gertatzeko, ezinbestekoa da curriculum inklusibo bat izatea eta curriculum inklusibo bat sortzerako orduan garbi izan behar dugu eduki tradizional batzuk mantentzeaz gain, beste kultura-jatorri batzuetako edukiak parekatu eta eduki berriak hautatuko direla. Modu honetan, ikasleen aurretiko esperientziari eta ezagutzei probetxua ateratzeko. Horrekin batera, esan, curriculum inklusibo bat izateko, beharrezkoa dela, besteak beste, eskola inklusibo eleaniztun bat izateko, hizkuntza guztiak baliozkotzat hartu eta ikasle bakoitzaren hizkuntza errespetatzea. Horretarako, ezinbestekoa da, ikasleek eskolan haien ama-hizkuntza garatzeko aukera izatea, modu honetan, haien nortasuna gorde eta lekuz kanpo ez sentiarazteko (Coelho, 2016).

Gainera, ez ditugu alde batean utzi behar haur hauen gurasoak, esaterako, ezgaitasunak dituen haur bat klasean izanez gero, ezinbestekoa da gurasoak alde batera ez uztea, oso posiblea baita gurasoak haurrari gertatutakoaren errudun sentitzea. Gurasoei aukera eman behar zaie, patuak utzi dien horri buruz amorrusentimenduak asetzeko. Guraso guztiek haien gaitasunei buruzko zalantzak dituztela jakin behar dute eta zalantza horiek askoz ere handiagoak izango liratekeela ezgaitasunen bat duen seme-alabaren bat izanez gero (Olshaker, 1993).

Ezin dugu ukatu haur guztiek aukera berdina izatea lortzea dela gure sistemak duen kontsignarik garrantzitsuena. Egiten den erreforma bakoitzak hau lortzea hitz ematen du eta (Enguita, 1990).

Hori horrela, eskola inklusiboen alde egiteko hainbat arrazoi badaude ere, garrantzitsuenak edo aipagarrienak honako hauek dira: lehenengoa, hezkuntza justifikazio bat da eta honek, eskola inklusiboek haur guztiak elkarrekin hezteko desberdintasun indibidualei erantzuna ematen dien irakaskuntza forma berriak garatu behar dituztela dio, hau, guztientzat onuragarria izanik; bigarrena, justifikazio soziala da eta honek, eskola inklusiboak desberdintasunerantz jotzeko aukera ematen dutela dio haur guztiak elkarrekin heziz gizarte ez diskriminatzaile bat izateko oinarria sortzen dutelako; eta hirugarrena, justifikazio ekonomikoa da eta honek, merkeagoa dela haur guztiak elkarrekin hezten dituzten eskolak ezartzea eta mantentzea, haur talde desberdinak eskola desberdinetan banatzen dituen sistema konplexu bat sortzea baino dio (UNESCO, 2004).

Halaber, ezinbestekoa da hezkuntza prozesuan haurren motibazioa lortzea haien buruarekiko autoestimua egokia izan dezaten (Elías eta Rincón, 2017). Honekin batera,

beharrezkoa da irakasleek haur guztiei berdin irakastea, hauen testuinguru kultural, etniko eta sozioekonomikoak alde batera utziz (Morrison, 2005).

1.3. HARRERAK

Eskoletan garatzen diren harreman mota ezberdinak ikusi ondoren, eskoletako egunerokotasunean gertatzen den une bat aztertuko da, harrerak. Lehenago aipatu bezala, harreretan aurreko orrietan azaldutako hiru harreman motak ikusten direnez, esan daiteke eskolako egunerokotasuneko une garrantzitsuenetariko bat dela harrera unea.

Harluxet Hitzegi Entziklopedikoak (2010) harrera honela definitzen du: “Norbaitek norbait, bere etxean, lagunartean, etab.etan hartzea, ostatu, laguntza, babesa emateko”.

Haurrak eskolara lehen aldiz joaten direnean ezinbestekoa da toki berri horretara egokitzea, bertako pertsonekin, irakasle zein haurrekin bizitzen ikastea. Aipatzekoa da gaur egun “egokitzen” hitza eztabaidagarria izaten hasi dela, eta “familiarizazio” hitza ere hasi dela erabiltzen. Familiarizazio kontzeptuak, haurren eta familiaren akonpainamenduari deritzo, momentu ezberdinen prozesu bat da non geldialdiak eta aurrerapenak egoten diren. Haur bat eta bere familia eskolara egokitzeak askotan konturatu gabe, haiek eskolara egokitzea esan nahi du. Haurrak segituan eskolako erritmoa hartzea da interesatzen duena, beraz, haurra da eskolaren erritmoa hartu behar duena. Pentsatzen jarriz gero, familiarizazioan eskolak edo familiak eta haurrak amore eman behar izaten duten une bat egoten da, eta normalean bigarrenak izaten dira etsi behar izaten dutenak (Febrer eta Jansà, 2011).

Familia gehientzat haien seme edo alaba eskolan hasteak sentimendu nahasketa bat sortzen du, kasu gehienetan haien seme-alabekiko lehenengo banaketa izaten da, beraz, ulertzekoa da arreta eta entzuketa handia behar duten momentu berezi bat dela. Sentimendu hori gehien 0-1 urteko haurren taldean egoten da. Oso zaila da hilabete gutxi batzuk dituen haur bat eskolan uztea, gurasoekin, gehienetan amarekin, lotura emozional handiena duen unea baita. Baina hala eta guztiz ere, beste taldeetan ere, banaketek tristura eta intseguritate efektuak izan ditzakete. Hau horrela, familiak zein haurrak, bertan egongo den hezitzaileak sentimendu horiek dituela, kontutan hartzen dituela eta erantzuna ematen diela jakin behar dute. Beraz, lehenengo topaketek izugarriko garrantzia dute haien harremana, konfiantzan, errespetuan eta komunikazioan oinarrituko dena eraikitzeko (Febrer eta Jansà, 2011).

Garbi dago, familiak funtsezko elementua direla Haur Hezkuntzako etapan; izan ere, irakasleei haien seme-alabei buruzko informazio garrantzitsua transmititzen diete eta horiei esker, haurra pasatzen ari den uneak ulertu ditzakete irakasleek eta esku-hartze egokiagoa egin (Mir, Batle eta Hernández, 2009)

Maisu-maistrak eskolako lehen egunak pentsatzen dituenean, zein espazio, zein material, zein antolaketa errekurtsu dituzten eta familiekin zein komunikazio estrategia erabiliko dituen (harreretan eta agurretan, koadernoak eta egunerokoak, telefonoz deitzeko aukera, etab.) pentsatu behar ditu bere helburuak bete daitezzen: giro erlaxatu bat, lasaia eta errespetuzkoa, haur bakoitzaren erritmoa errespetatzea utziko duena eta etxetik eskolarako trantsizioan lagunduko duena. Baina garbi izan behar dena, guztiak ongi funtzionatzeko ezinbestekoa dela haurrak maisu-maistrarekin lotura afektibo bat eraikitzea, ez orain arte izan duenaren besteko gogorra (aita edo amarekin), baina nahiko sendoa, eskolako estantzia segurtasunez gainditu ahal izateko (Febrer eta Jansà, 2011).

Familien parte-hartzea bultzatzeko estrategiarik ohikoenak informazio formalak trukatzeko dira, esate baterako, hezitzailearen elkarrizketak familiarekin, bilerak, zirkularrak, banakako txostenak edo estrategia informalagoak, hala nola, sarreretan eta irteeretan eguneroko harremana. Harreman hori bultzatzeko beste modu batzuk parte hartzea eskatzen den jarduerak antolatzea da. Ikasgeletan, hezitzaileek gurasoen laguntza eska dezakete gai bati buruzko ezagutza zabal dezaten edo haurrei trebetasunen bat irakasteko. Hori dela eta, bere seme edo alaba berezia sentitzen da, une batzuegatik, bere ikaskideengatik aintzat hartua edo ezagutua, eta horrek lagundu egiten dio autoestimua hobetzen eta harreman afektiboak, seguruak eta jarraituak berresten (Mir, Batle eta Hernández, 2009).

Bestalde, ezinbestekoa da gelan geratu nahi duten gurasoei haien nahia errespetatzea. Ideia ona da familiak gustura sentitu daitezkeen espazio bat sortzea, esertzeko eta eroso egoteko. Honen bidez, familiak haurrengandik urrundu daitezke nahi izanez gero, baina, modu berean gertutasun jarrera bat izan haien seme-alabekiko, umeak nahi duen guztietan haiengana joateko aukera izango du, modu honetan familia non utzi duen jakingo du eta txokoaren erreferentzia izango du. Irakasleak garbi izan behar du haur bakoitza oso modu ezberdin eta pertsonaletan izan dela zaindua, beraz, haurrekin dituen momentu gertukoak zaintzea ezinbestekoa da (Febrer eta Jansà, 2011).

Jaiak, tailerrak edo eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea ere gurasoek haien seme-alabek egiten dutenean parte hartzea bultzatzea izaten da helburua. Beharbada, modu egokiagoan parte hartzen hasteko, izan ere, ikasgelaren aurreko kasuetan bezala, ez da aita edo ama bakarrik parte hartzen duena, guraso taldeak edo ikastetxeko familia guztiak dira. Horrela, gurasoak ez dira deseroso sentiarazten, bat-batekoagoak izan daitezke eta seme-alabekin gehiago komunikatzeaz eta beren premia sozialak eta seme-alabenak asebetetzeaz arduratu. Gurasoentzako eskola eta lantegiak beste aukera bat dira, baina helduei bakarrik zuzenduta badaude ere, gurasoen ezagutzari erantzun nahi diote eta helburua gurasoen ezagutzari erantzutea, arazoak partekatzea eta seme-alabak izatean sortzen diren zalantzak konpontzea da, modu honetan, seme-alabekiko harremana hobetuz eta haurren beharrak hobeto asetuz. Gurasoen partaidetza eta lankidetzarako espazioak eta uneak honako hauek dira: eguneroko kontaktuak haurren harrera eta agurretan; elkarrizketa indibidualak, ikasturtean zehar eta tutoretzak, ikasturtean zehar; hiru hilean behin egiten diren bilerak, eskolaz kanpoko jarduerak, antzerki-emanaldiak, dekorazioa; AMPA, etab. (Mir, Batle eta Hernández, 2009).

1.3.1. ATXIKIMENDUA

Esan daiteke, eskolako harrerak haur txikiak familiako kideekin duten harremana ikusteko unerik egokienak direla, eta beraz, hauekiko duten atxikimendua nolakoa den nabarmentzen da gehienetan. Familia gehienetan ama izango da haurtxoak atxikimendua garatzen ikasteko aukera izango duen lehenengo pertsona. Atxikimendu goiztiarra ez da berehalako harreman baten ondorio automatikoa. Nahita edo nahi ez, osasuntsua den eta atxikitzen hasten den haur oro, aldi berean, larritzen hasiko da. Maitasuna sentitzen duen eta atxikimendu bat garatzen duen haur orok bere beharra asetzen duen pertsona galtzeko beldurra izango du. Fenomeno hori zortzi edo bederatzir hilabeteren buruan agertzen da, haurtxoak irudi nahiko garatuak dituen eta ama faltan botatzeko gai denean. Adin horretako haurtxoak ez du zalantzarik atxikimenduaren arabera. Bere mailan, bera gabe ez litzateke gauza askorik izango. Beraz, atxikimendua bizitzea da, aldi berean, mendekotasuna bizitzea. Atxikimendu-prozesuak sei eta hamazazpi hilabete artean izaten dira normalean (Borbély, 2016).

Haien zaintzaileengandik haientzat ezaguna ez den egoera batean banandutako haurrek lau jokabide patroietatik bat erakusten dute. Lau horietatik ohikoena atxikimendu segurua izan ohi da. Atxikimendu mota hau jasaten duten haurrek, hauen zaintzailearen aurrean pertsona ezezaguna saihesten dute, hauen zaintzailea urruntzean asaldatu

egiten dira, eta hau itzultzean, berehala zaintzailearekiko kontaktua bilatzen dute eta zaintzaileak segurtasuna ematen die berriro. Ondoren, haurra esploraziora itzultzen da berriz (Fonagy, 1999).

Jakina da, eskolan haurraren eta bere guraso edo ingurukoen arteko atxikimendua ikusten dela, baina lehenago aipatu bezala, berebiziko garrantzia du haur horrek izan duen egokitzapenak, haur baten egokitzapena errazagoa edo zailagoa izatearen arrazoi nagusia bere zaintzailearekiko duen atxikimendua izaten baita. Beraz, nahiz eta atxikimendua eskolan egunerokotasunean ikusi daitekeen zerbait den, egokitzapen aldia izugarritzko eragina du. Egokitzapen aldia haurrak sortzen duen prozesua da, sentimenduen ikuspuntutik, eskola bezalako ingurune berri bat onartu behar du. Aldi hori eta ebazteko modua oso garrantzitsua izango da haurra sozializatzeko prozesuan eta eskolarekiko eta ikaskuntzarekiko izango duen jarreraren islatuko da (Criado, 2008).

Ez dago esan beharrik egokitzapen prozesua guztiz ezberdina dela haur guztietan, haur guztien erritmoak errespetatzea ezinbestekoa da, haur bakoitza heldutasun sozial eta emozional ezberdinarekin heltzen baita eskolara. Baina noiz amaitzen da prozesua? haur bat eskolan egokituta dagoela esaten da haurrak eskaini eta onartu egiten duenean, bere tutorearekiko afektua erakusten duenean eta bere esperientziak gainontzekoekin elkarbanatzeko gai denean (Criado, 2008).

1.4. AGURRAK

Aurreko orrietan aipatu bezala, harrerak eskolako egunerokotasuneko une oso garrantzitsuak dira besteak beste, hiru harreman mota ezberdin gertatzen direlako, baina, berdina gertatzen da agurrekin ere. Eskola agurrak eskolako egunerokotasunean irakasle, familia zein haurrek bizitzen duten uneak dira, beraz, harrerak bezala, hauek ere izugarritzko garrantzia dute.

Harluxet Hitzegi Entziklopedikoak (2010) honela definitzen du agur hitza: “Norbaiti, ikustean edo eskutitz baten hasieran, eta bereziki harengandik urruntzean edo eskutitz baten bukaeran egiten zaion adierazpena; horretarako erabiltzen den hitza”.

Irakasle eta gurasoen arteko egunerokotasuneko kontaktua ezinbestekoa da eta oso aholkatua haurrak 6 urte bete arte, haurrak bere erreferentziazko nagusiak erlazionatzen direla ikusteko, gurasoek eskolarekiko duten ezagutzak handitzeko eta irakasleek haurraren jarrerak ulertu ahal izateko informazioa eskuratzeko. Irakasleak familiekin eskola sarrera edo irteeretan hitz egin ahal izateko, zenbait egoera sortu behar

dira. Jarduera motak bateragarriak izan behar dute guraso presentziarekin: umeeek nolabaiteko jarduera autonomoa izan behar dute, maisu-maistrak umearen eta gurasoen arteko arreta partekatuzeko. Jolas librea aukera onena izango da ziurrenik, beti ere antolaketa-maila bat izanez eta material erakargarriak baina azkar jaso daitezkeenak erabiliz, batez ere irteeraren aurretik dagoen unean, hots eskola agurretan. Haurrek ez dute zain egon beharrik inolako jarduerarik izan gabe, harik eta haur guztiak etorri edo joan arte; zentzurik gabeko itxaronaldiek, gatazkak biderkatu eta txikien larritasuna areagotu dezakete agurretan eta elkartzeetan (Paniagua eta Palacios, 2005).

Familiaren batekin harrera eta agurretan hitz egitea ezinezkoa bada, beste komunikatzeko bide alternatibo batzuk aurkitu behar dira. Esaterako, txikieneen kasuan koadernoak. Baina kasu guztietan, ahalegindu behar da informazioa ez mugatzea soilik elikadurara eta lora, haurren animoaren egoera ere islatu behar da edo, are gehiago, umearen jardunaldiaren inguruko informazio biziagoa ematen duen anekdota txiki bat ere azaldu daiteke (Paniagua eta Palacios, 2005).

2. HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia, ikastola batean gauzatzen diren harremani buruzko informazioa biltzea izan da, horretarako, ikastolan harreman desberdin gehien elkarrekin gauzatzen diren momentuak aukeratu dira, harrerak eta agurrak, eta horien behaketa bat burutu da.

Honen bidez, eta irakasleek haurren bizitzetan garrantzi handia dutenez, irakasleek eta haurrek duten harremana behatzeko aukera izateaz gain, gurasoek edo aiton-amonek haurra eskolan uztean eta jasotzean haurrekin izaten duten jarrera eta irakasleek guraso zein aiton-amonekin duten harremana behatu ahal izan dira.

Maisu-maistrek haurrekin duten harremanari erreparatuz gero, irakasleak haur bakoitzari harrera eta agurretan behar besteko denbora eskaintzen dien ikustea izan da helburu nagusia eta horrekin batera ea haurrak irakaslearekiko atxikimendua duten edo ez ikustea. Familiek haurrekin duten harremanari dagokionez, ea umea eskolan uztean eta jasotzean denbora bat eskaintzen dien hau agurtzeari behatu ahal izan da, besteak beste. Eta azkenik, irakasleek familiekin duten harremanari eutsiz, konfiantzazkoa den edo ez ikustea izan da helburu bat, ea eguneroko oharretan konfiantza eta errespetua nabaritzen den, azken finean hori baita ikastolan dagoen metodologiaren funtsa.

3. METODOA

3.1. Lagina

Ikerketa hau burutu ahal izateko hauek izan dira behatu diren pertsonak:

- 32 urte dituen irakasle bat, emakumezkoa.
- 7 ama, 2 aita, 3 amona eta aitona bat.
- 13 haur (bederatzi mutiko eta lau neskatu).

Ikerketa Oñatiko Txantxiku ikastolan burutu da, bertan orain dela hiru urte izugarrizko aldaketa egin eta Konfiantzaren Pedagogia jarri zuten martxan, Ixutu proiektua.

3.1.1. TXANTXIKU IKASTOLA

Txantxiku Ikastola, 1967. urtetik Oñatin kokatuta dagoen, D ereduko ikastetxe kontzertatu, euskaldun eta laikoa da. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko (0-18 urte) ikasleei giza baloreetan oinarritutako kalitatezko hezkuntza euskalduna eskaintzen dien guraso, langile eta laguntzaileez osatutako herri-onurako hezkuntza kooperatiba da. (Ikus 1. eranskina).

Ildo beretik, Txantxiku Ikastola, euskal hizkuntza eta kultura transmititzeko, erabilpen eraginkorra egiteko, garatzeko eta indartzeko konpromisoarekin sortu zen eta hori du ezaugarritzat, beraz, hezkuntza eta hizkuntza proiektuaren ardatz euskara izanik, pertsona eleaniztunak hezi nahi ditu, beste hizkuntzaren beharrezko ezagutza eta erabilera erdiestera bideratuz. Hots, bertako hizkuntza propioa (euskara) eta kontaktuko hizkuntzaz gain (gaztelania), atzerriko hizkuntza batean (ingelesa) bere kasako erabiltzaile maila eta beste batean (frantsesa) oinarritzko erabiltzaile maila lortu nahi du. Horrekin guztiarekin hizkuntzen eta kulturen ikuspegi integratzailea garatu nahi du (Txantxiku Ikastolako Hezkuntza Proiektua, 2016).

Horretarako egiten duen hautu pedagogikoa Konfiantzaren Pedagogian oinarritzen da: eredu humanista, irekia, integratzailea, berritzaile-aurrerakoia, aktibo-ekintzailea, parte hartzailea eta kooperatiboa. Antolaketa hautuari dagokionez, kooperatiba integrala osatzen dute: guraso, langile eta laguntzaileez osatutako hezkuntza komunitate bat da ikastola. Gaur egun, ikastola 992 ikasle, 85 langile, 549 familia eta 126 laguntzailek (gutxi gora behera) osatzen dute (Txantxiku Ikastolako Hezkuntza Proiektua, 2016).

Konfiantzaren pedagogiaz eta metodologia berriez gehiago informatzeko (Ikus 2. eranskina).

3.2. Instrumentua

Lana aurrera eramateko behaketa sakon bat burutu da lau egunetan zehar eta behatutako guztia taulen bidez sorturiko erregistro orri batean adierazi da. Bertan, harrera eta agurrak bereiztu dira eta bakoitzean aztertu diren harremanak hauek izan dira: irakasle-haur; guraso/aiton-amona-haur eta irakasle-guraso/aiton-amona. Behatutako jarrerak, ea familiek haurra ikastolan uztean lehenengo haurrari egiten dioten kasu edo irakasleari, ea bila nor etorriko den esaten dioten eta ea denbora bat eskaintzen dien, besteak beste. Irakasleak familiekin duen harremanean, ea elkarrekin hitz egiteko denbora hartzen duten, elkarri haurrari buruzko datuak transmititzen diren, etab. Eta irakasleak hurrekin duen harremanari lotuta, ea haurra ikastolan sartzean irakasleak denbora eskaintzen dion, muxua edo besarkada ematen dion, zerbait galdetzen dion, etab. Agurretan ere antzerako jarrerak behatu dira, familia haurraren bila etortzean ea irakasleak haurraren inguruko datuak transmititzen dizkion, familiak ikastolara sartzean lehenengo haurrari edo irakasleari egiten dion kasu eta irakasleak haurra agurtzeko ea denbora bat hartzen duen, besteak beste.

Harrerak behatzeko hiru taula burutu ziren, lehenengoa, irakasle eta haurren arteko harremana behatzeko, bigarrena, guraso edo aitona-amonek hurrekin duten harremana behatzeko eta azkenik, irakasleek guraso edo aitona-amonekin duten harremana behatzeko. Ondoren, prozedura berdina jarraitu zen agurrekin. Azkenik, ateratako emaitzekin zenbait grafiko burutu dira emaitzak modu argiago batean ikusi ahal izateko. (Ikus 3. eranskina).

3.3. Prozedura

Behaketa hauek lau egunetan zehar burutu ziren, Urtarrileko bigarren astean hain zuzen ere, 17tik-20ra. Lehen egunean lau haurren eta haien familien harrera eta agurrak behatu ziren eta gainontzeko hiru egunetako bakoitzean hiru haur eta familiak behatu ziren, modu honetan, egun bakoitzeko behaketak modu zehatzago batean burutzeko aukera izanik.


Behaketa hauek, lehenago aipatu bezala, Oñatiko Txantxiku Ikastolako urte bateko 13 haur, 7 ama, 2 aita, 3 amona, aitona bat eta bertako irakasle tutorea behatuz burutu ziren.

4. EMAITZAK


Behaketa guztiak amaitu bezain pronto eta erregistro orria beteta izanik, emaitzak ikusgarriagoak izateko helburuarekin harreman mota bakoitzaz azterturiko jarrera bakoitzarekin grafika bat burutu da. Honen bidez, emaitzak ehunekotan azaltzeaz gain, ikusteko errazagoa da. Prozedura hau, harrera zein agurrekin errepikatu da.

4.1. HARRERAK


4.1.1. Irakasle-haur




Grafikoa 1 IRAKASLEAK HAURRA AGURTU



Grafikoa 2 BESARKADA (IRAKASLEAK HAURRARI)




Grafikoa 3 MUXUA (IRAKASLEAK HAURRARI)



Grafikoa 4 ESALDI BAT ESAN (IRAKASLEAK HAURRARI)

**ARRETA ESKEINI MINUTU
BATZUETAN (IRAKASLEAK
HAURRARI)**



Grafikoa 5 ARRETA ESKEINI MINUTU BATZUETAN (IRAKASLEAK HAURRARI)

**GALDERAK EGIN
(IRAKASLEAK HAUR BATI)**



Grafikoa 6 GALDERAK EGIN (IRAKASLEAK HAUR BATI)

**EGUNEAN ZER EGINCO
DUTEN AZALDU
(IRAKASLEAK HAUR
BAKOITZARI)**



Grafikoa 7 EGUNEAN ZER EGINCO DUTEN AZALDU (IRAKASLEAK HAUR BAKOITZARI)

**GAINERAKO
HAURRENGANA ERAMAN
(IRAKASLEAK HAURRA)**



Grafikoa 8 GAINERAKO HAURRENGANA ERAMAN (IRAKASLEAK HAURRA)

Irakasleak hurrekin duen harremanari dagokionez, grafikoetan ikusten den moduan irakasleak haur guztiak agurtzen ditu ikastolara etortzen direnean, ia erdiari besarkada eta guzti ematen die eta hamahiru haurretatik hamaikari muxua eman die. Aipatzekoa da, kasu honetan, gainontzeko bi hurren harrerak egitera justu iritsi dela. Horrekin batera, 9 hurrei esaldiren bat esan die, besteak beste, etxetik ekarritako ipuinari buruzkoak, ilea moztu eta gero zein guapo dagoen, etab.


Honekin batera, esan, haur bakoitzari etortzen direnean denbora eskaini eta arreta jartzen diela. Kasu honetan, bi hurrekin ez zuen behar besteko denbora izan eta

arreta gutxiago eskaini zien, momentuko mugimendua zela eta. Horrez gain, bost haurri egunean zer egingo duten azaltzen die. Azkenik, ikastolara gogo gutxiagorekin etorri diren haurrak, kasu honetan hamahirutik lau, gainontzeko haurrengana eramaten ditu hauekin jolastu dezaten eta ikastolan lasaiago geratu daitezten.


4.1.2. Guraso edo aitona/amona - haur




Grafikoa 9 GELARA SARTU (GURASO/AITONA-AMONAK)



Grafikoa 10 HAURRA AGURTU (GURASO/AITONA-AMONAK)



Grafikoa 11 MUXUA EMAN (GURASO/AITONA-AMONAK HAURRARI)



Grafikoa 12 ITZULIKO DELA ESAN (GURASO/AITONA-AMONAK HAURRARI)



Grafikoa 13 BILA NOR ETORRIKO DEN ESAN
(GURASO/AITONA-AMONAK HAURRARI)




Grafikoa 14 LEHENENGO IRAKASLEARI KASU ALA HAURRARI? (GURASO/AITONA-AMONEK)


Guraso eta aitona-amonek hurrekin duten harremana behatu ondoren eta grafikoetan islatzen den moduan, aipatzekoa da guztiak sartzen direla eremura eta haurra ikastolan utzi aurretik guztiek agurtzen dutela haurra eta muxua ematen diotela. Gainera, %85ak itzuli egingo diela esaten diote. Eta, %46ak azaltzen die haurrari nor etorriko den haien bila.

Amaitzeko, guraso edo aitona-amonak ikastolara sartzean, %54ak irakasleari kasu egin aurretik haurrari egiten diote kasu, aldiz, gainontzekoak, %46ak lehenago egiten diote kasu irakasleari haurrari baino.


4.1.3. Irakasle - guraso/aitona-amona




Grafikoa 15 AGURTU (IRAKASLEAK GURASO/AITONA-AMONAK)



Grafikoa 16 GALDERAK EGIN (IRAKASLEAK GURASO/AITONA-AMONEI)




Grafikoa 17 ELKARRIZKETA BAT MANTENDU (IRAKASLEAK GURASO/AITONA-AMONEKIN)



Grafikoa 18 HAURRARI BURUZKO INFORMAZIO TRUKAKETA (IRAKASLEAK GURASO/AITONA-AMONEKIN)

BILA NOR ETORRIKO DEN GALDETU




Grafikoa 19 BILA NOR ETORRIKO DEN GALDETU (IRAKASLEK GURASO/AITONA-AMONEI)

AGENDA BEGIRATU



Grafikoa 20 AGENDA BEGIRATU (GURASO/AITONA-AMONEK)

LEHENENGO HAURRA EDO IRAKASLEA AGURTU?




Grafikoa 21 LEHENENGO HAURRA EDO IRAKASLEA AGURTU (GURASO/AITONA-AMONEK)

Harrerekin amaitzeko, irakasleak guraso edo aitona-amonekin duen harremanari dagokionez, guztiak agurtzen dira elkar, hamahirutik bederatziri haurren inguruko zenbait galdera egiten dizkie irakasleak, hala nola, ea nola egin duten lo, guztiz sendatuta dauden edo oporrei buruzko galderak. Gehienekin izaten du denbora elkarrizketa bat mantentzeko, haurrari buruz edo herriko zerbaiti buruz. Baina guztiekin hartzen du denboratxo bat haurrari buruzko informazio trukaketa egiteko. Guzti horietatik %15ari soilik galdetzen dio ea nor etorriko den bila, bai betiko berdina delako edo guraso edo aiton-amonak lehenago esan diotelako.


Horrekin batera esan, goizean, harrera momentuan inork ez duela agenda begiratzen. Agenda hau guraso eta irakasleen arteko informazio trukaketa errazteko bidea da. Amaitzeko, guraso eta aiton-amona guztiek agurtzen dute lehenbizi haurra.

4.2. AGURRAK


4.2.1. Irakasle-haur




Grafikoa 22 AGURTU (IRAKASLEAK HAURRA)



Grafikoa 23 BESARKADA (IRAKASLEAK HAURRARI)



Grafikoa 24 MUXUA (IRAKASLEAK HAURRARI)



Grafikoa 25 ESALDIREN BAT ESAN (IRAKASLEAK HAURRARI)



Grafikoa 26 ARRETA ESKEINI MINUTU BATZUETAN (IRAKASLEAK HAURRARI)


Agurrak aztertzen behatutako harremani buruz, irakasle eta haurren arteko harremanari jarraiki, esan, etxera joateko ordua iristean, irakasleak ez zituela haur guztiak agurtu, hamahirutik hiru irakasleak agurtu gabe joan ziren, haien gurasoak ikusten poz pozik jarri eta korrika haiengana joan zirelako.

Agurtzerakoan bi haurri soilik eman zien besarkada, muxua aldiz, seiri. Ildo beretik, %63ari esaldiren bat esan zien, besteak beste, ongi bazkaltzeko, ongi pasatzeko eta bihar berriz etortzeko. Hau horrela, eta agurrak, harrerak baino azkarrago joan zirela ikusiz, irakasleak ez zion haur bati ere ez eskini arreta minutu batzuez.


4.2.2. Guraso/aitona-amona – haur




Grafikoa 27 GELAN SARTU (GURASO/AITONA-AMONAK)



Grafikoa 28 HAURRA AGURTU (GURASO/AITONA-AMONEK)



Grafikoa 29 MUXUA (GURASO/AITONA- AMONEK HAURRARI)




Grafikoa 30 ZER MODUZ IBILI DEN GALDETU (GURASO/AITONA- AMONEK HAURRARI)




Grafikoa 31 LEHENENGO HAURRARI EDO IRAKASLEARI KASU (GURASO/AITONA- AMONEK)

Guraso eta aitona-amonek agurretan hurrekin duten harremana aztertuz, hauetatik %62a eremuan sartzen dira, gainontzekoak ate ondora gerturatzen dira soilik. Haurra agurtu eta muxua eman %77ak egiten du eta %69ak zer moduz ibili diren galdetzen die. Amaitzeko, guztiek egiten diote kasu lehenengo haurrari eta ondoren irakasleari.

4.2.3. Irakasle - guraso/aitona-amona




Grafikoa 32 AGURTU (IRAKASLEAK GURASO/AITONA- AMONAK)



Grafikoa 33 GALDERAK EGIN (GURASO/AITONA-AMONEK IRAKASLEARI)



Grafikoa 34 ELKARRIZKETA BAT MANTENDU (IRAKASLEAK GURASO/AITONA-AMONEKIN)



Grafikoa 35 HAURRARI BURUZKO INFORMAZIO TRUKAKETA (IRAKASLEAK GURASO/AITONA-AMONEI)



*Grafikoa 36 AGENDA BEGIRATU
(GURASO/AITONA-AMONEK)*

Behaketetan atera diren emaitzekin amaitzeko, irakasleak guraso edo aitona-amonekin duen harremanari dagokionez, %69ak agurtzen dute elkar, gainontzekoak ez dira agurtu. Horrez gain, %46ak haurrari buruzko galderak egiten dizkie tutoreari, hala nola, ongi ibili den, ea guztia jan duen, kakarik egin duen, etab. Horrekin batera, %46arekin elkarrizketa bat mantendu du haurraren egunari buruz. Eta %62arekin haurrari buruzko informazio trukaketa egin du. Amaitzeko esan, egunaren amaieran ikastolatik irten aurretik agenda soilik ama batek begiratu duela. Gainontzekoek ez diote kasu handiegirik egin.

5. ONDORIOAK

Hasiera batean esan bezala, Ikastolan erabiltzen den metodologiaren funtsa betetzen da, hots, esan daiteke konfiantza eskuratzen dela irakasle, familia eta haurren artean. Haurrek haiek maite dituztenak Ikastola barruan ikusten dituzte eta horrek lasaitasuna transmititzen die.

Horrez gain, emaitzetan ikusi den bezala irakasleak eta guraso edo aitona-amonek egunero hitz egiten dute eta hori ezinbestekoa da, haurrek haien guraso edo tutoreak haien bizitzan gertatzen ari dena gertutik jarraitzen dutela ikusten badute lasaiago sentitzen baitira (Ormeneze, 2015).

Baina egia da, familiek eta irakasleak harreretan, agurretan baino gehiago hitz egiten dutela eta informazio gehiago transmititzen direla elkarri. Hau, haur, zein guraso edo aitona-amonen artean, banaketek tristura eta intseguritate efektuak sortzen dituelako da (Febrer eta Jansà, 2011). Beraz, haurraren eta bere erreferentearen arteko atxikimendua gehien ikusten den unea haurraren momentua dela esan daiteke.

Horretaz aparte, haurra eskolan hobeto edo okerrago gelditzearen eragina, haur horrek izan duen familiarizazioaren arabera izaten da normalean, egokitzapen aldia haurrak sortzen duen prozesua baita, sentimenduen ikuspuntutik, eskola bezalako ingurune berri bat onartu behar du. Aldi hori eta ebazteko modua oso garrantzitsua izango da haurra sozializatzeko prozesuan eta eskolarekiko eta ikaskuntzarekiko izango duen jarreraren islatuko da (Criado, 2008).

Honekin batera, esan, irakasleak haur bakoitza ikastolara etortzean bakoitzari harrera egiteko denbora hartzen duela, baina emaitzetan ikusi ahal izan den moduan bi haurrekin ez zuen behar besteko denbora izan, momentuan gelan zegoen mugimendua zela eta ez zelako iritsi. Eta bost haurri egunean zer egingo duten azaldu die, haurrak ikastolan lasaiago geratu daitezten. Aipatzekoa da, hau ez duela haur gehienekin egiten, gainontzeko haurrak errutina oso barneratuta dutelako eta galdetuz gero haiek esaten dutelako zer egingo duten ikastolan.

Emaitzetan aipatu bezala guraso eta aitona-amonak guztiak eremura sartzen dira eta haurra agurtzen dute harreretan, gainera, muxua ematen diote. Horrez gain, egunaren arabera pertsona desberdinak eskolara eramaten dituzten haurrei bila nor etorriko den azaltzen diete.

Agurrak, aldiz, azkarragoak izaten dira, presa edo etxera joateko gogoia dela eta, edo agian haurrak pozik joaten direlako beti etxera. Aipatzekoa da, emaitzetan ikusi ahal izan den moduan, guraso edo aitona-amonak batzuekin irakasleak ia ez duela hitz egin agurrean, horrelako kasuetan garrantzitsua da beste komunikazio bide alternatibo batzuk erabiltzea, eta nahiz eta ikastola honetan koadernoak erabiltzen den, familiek ez diote ia kasurik egiten ikastolan bertan. Eta nahiz eta gero etxean gehienek begiratzen duten, beharrezkoa da hauek gehiago erabiltzera bultzatzea familiak. Halaber, aipatzekoa da irakasleak familiei transmititu behar dieten informazioa ez dela mugatu behar soilik elikadurara eta lora, haurraren animoaren egoera ere islatu behar da edo, are gehiago, umearen jardunaldiaren inguruko informazio biziagoa ematen duen anekdota txiki bat ere azaldu daiteke (Paniagua eta Palacios, 2005). Eta egia da normalean egunerokotasuneko elkarrizketak horrelako datuak emateko izaten direla, baina, ia beti ahalegintzen da horrez gain beste datu edo kontakizunen bat aipatzen familiei.

Gainera, familia eta irakasleen arteko elkarrizketak ez dira soilik guraso edo aitona-amonak haien haurrak eguna nola pasatu duen jakiteko, gurasoek haien seme-alabei buruzko informazio garrantzitsua transmititzen diete irakasleei eta horiei esker,

maisua maistrek haurra pasatzen ari den uneak ulertu ditzakete eta esku-hartze egokiagoa egin (Mir, Batle eta Hernández, 2009).

Lehenago esan bezala, maistrak garrantzi handiagoa ematen dio harrerei denbora eskaintzeari, azken finean haurra ongi gelditzen bada ikastolan hobeto egongo da egunean zehar eta gurasoak edo aitona-amonak lasaiago uzten dute ikastetxean. Baina horretarako, ezinbestekoa da haurrak maisu-maistrarekin lotura afektibo bat eraikitzea, eskolako estantzia segurtasunez gainditu ahal izateko. Ildo beretik, esan, ikastolan familiak nahi adina gelditu daitezkeela eta garrantzitsua dela haien nahia errespetatzea (Febrer eta Jansà, 2011).

Irakasleak hurrekin duen harremanari erreparatuz, emaitzetan ikusi ahal izan da irakaslea oso gertukoa dela eta hori hurrek eta familiek jasotzen duten zerbait da. Azken finean haurrak eskolan lasai sentitzeko maitasuna sentitu behar dute (García, 2012). Eta nahiz eta irakaslea, ikusi ahal izan den moduan, batzuetan ez den iristen haur guztiengana, haur bakoitzari eskaini beharko lioken tratua emateko denbora falta izaten baitu (Fabrés, 2006), bere lana ahalik eta ongien burutzen du eta bere jarrera haurri bere garapenean laguntzen dion hezitzaile maitagarri batena da. Ezinbestekoa da irakasleak hurrekin harreman sakona eratzea eguneroko bizitzan haiek zaintzerakoan (otorduaren garaian, fardela aldatzeko unean, etab.). Zaintza Haur Hezkuntzako etapan funtsezkoa da eta zaintza horiek baimenean, errespetuan, kontaktuan, begiradan, etab. oinarritu behar dira (Buldain, 2013).

Ikastolan erabiltzen den metodologiari jarraiki, aipatzekoa da Konfiantzaren Pedagogiaren testuinguru osasungarri bat izateko lehenengo baldintza honakoa dela: *“Komunitatearekin lotura egitea, familia eta gizartea lotzeko, denen artean konfiantza sustatzeko eta haurrak konfiantza giro horretan hezteko”* (Antero, 2015, 15 orr). Eta ikusi ahal izanenez, esan daiteke ikastola honetan harrera eta agurretan gauzatzen diren harreman guztiak, hots, irakasle eta haurren arteko harremana, irakasle eta familien arteko harremana eta familia eta haurren arteko harremana konfiantzazkoak direla.

Amaitzeko, garbi dago ikastolak familiarekin harreman estua izatea oso garrantzitsua dela, haurrak bere ikastolako hezitzaileengan konfiantza izan dezan. Hau horrela izateko, familia ikastola barruko espazioetara sartu behar da, ikastola barruko jardueretan hezitzaileekin arituz, hezitzaileak familiarekin sarri komunikatuz. Haurrak hori ikustean konfiantza sumatzen du, berarentzat horren garrantzitsuak diren helduek ikastolan lekua dutela somatzen baitu (Antero, 2015).

Haur Hezkuntzako Heziberri 2020 dekretu Curricularrari erreferentzia eginez, honakoa dio: “Haur Hezkuntzaren xede nagusia da dimentsio guztietan laguntzea haurraren garapena, familiekin eta ingurunearekin lankidetzan estuan jardunda. Irakatsi eta ikasteko prozesuak lantzeko, ezinbesteko dira erantzukidetasuna, lankidetzan eta elkarren onarpena” (237/2015 DEKRETUA, 22 orr).

Laburbilduz, familia eta eskola ez dira sistema independenteak, eskolak ez ditu hezten haurrak familiengandik urrun. Heztea, familian edo eskolan, jardura konplexua da. Funtsezkoa da, beraz, familiaren eta haur-hezkuntzako instituzioaren artean ahalik eta harreman koherenteena eraikitzea (Ormeneze, 2015). Beraz, garbi ikusi da, Ikastola honetan urte bateko haurren, haien irakasle-tutorearen eta familien artean dagoen harremana oso estua eta konfiantzazkoa dela, modu honetan, Ikastolan erabiltzen den metodologiaren, hots, Konfiantzaren Pedagogiaren, funtsa lortuz, konfiantza lortuz.

6. BIBLIOGRAFIA:

- 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako Curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila, EHAA, 9, 142 (237).
- Aguado, L. (2010). Familia ereduak gaurko eskolan. *Tantak*, 22 (1), 127-148. Berreskuratuta:
<http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Tantak/article/viewFile/2201/2270>
- Antero, A. (2015). *Konfiantzaren Pedagogia. Arizmendi ikastolaren markoa*. Andoain, Espainia: Leitzaren grafikak.
- Benito, B. (2006). Las relaciones interpersonales de los profesores en los centros educativos como fuente de satisfacción. *Convergencia con Europa y cambio en la universidad: XI Conferencia de Sociología de la Educación: Santander*, 218-219. Berreskuratuta:
http://webcasus.usal.es/orgyprof/Difusion/Santander_2005_Berna.pdf
- Bolívar, A. (2006). Familia y escuela: dos mundos llamados a trabajar en común. *Revista de Educación*, 339 (1), 119-146. Berreskuratuta:
<https://www.forofamilia.org/documentos/FAMILIA%20-%20Familia%20y%20escuela.%20Dos%20mundos%20llamados%20a%20trabajar%20en%20comun..pdf>
- Borbély, S. (2016). El dilema de la autonomía y el apego en las familias de hoy. Actualización del eterno debate sobre los factores del desarrollo del niño desde la perspectiva piagetiana. *RELAdEI. Revista Latinoamericana de Educación Infantil*, 5 (3), 54-61. Berreskuratuta:
<http://www.usc.es/revistas/index.php/reladei/article/view/4933/5290>
- Buldain, A. (2013). Haurren gaitasunak eta heziketa: ilusioak, itxaropenak eta aldaketak. *Hik Hasi*, 30-37.
- Celaá, I. (2012). *Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoa*. Berreskuratuta:
http://www.berrigasteiz.com/monografikoak/dokum_artikulazioa/100011e_Pub_EJ_Plan_diversidad_e.pdf

- Coelho, E. (2016). *Eskola kulturantzunetan irakastea eta ikastea*. Bilbo, Espainia: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Criado, A. B. (2008). La importancia del período de adaptación en educación infantil. *Revista digital innovación y experiencias educativas*, 1-10. Berreskuratuta: https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_13/ANA_BELEN_CRIADO_1.pdf
- Elías, A., eta Rincón, L. (2017). Políticas que favorecen la inclusión. *Zerbitzuan*, 64, 45-56. Berreskuratuta: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6218880>
- Enguita, M. F. (1990). *La escuela a examen*. Madril, Espainia: Eudema
- Estévez, E., Martínez, B., eta Jiménez, T. I. (2009). Las relaciones sociales en la escuela: el problema del rechazo escolar. *Educational Psychology*, 15 (1), 45-60. Berreskuratuta: <https://journals.copmadrid.org/psed/archivos/ed2009v15n1a6.pdf>
- Fabrés, M. (2006). En el día a día, nada es banal, nada es rutina. *Infancia*, (100), 1-4. Berreskuratuta: https://www.piklerloczy.org/sites/default/files/documentos/monte_fabres_en_el_dia_a_dia_nada_es_rutina.pdf
- Febrer, I., eta Jansà, E. (2011). Empieza la escuela infantil, un proceso de familiarización. *Infancia: educar de 0 a 6 años*, (129), 10-16.
- Fonagy, P. (1999). Persistencias transgeneracionales del apego: una nueva teoría. *Aperturas psicoanalíticas*, 3, 1-17. Berreskuratuta: https://scholar.googleusercontent.com/scholar?q=cache:ZGI3F5mHvYkJ:scholar.google.com/+apego+seguro&hl=es&as_sdt=0,5
- Gallardo, I. (2015). Aprender como forma de relación en Educación Infantil. *ENSAYOS, Revista de la Facultad de Educación de Albacete*, 30 (2), 37-42.
- García, A. (2012). Comunicación y educación: juntos, separados o revueltos. *Aularia: Revista Digital de Comunicación*, 1 (1), 11-14. Berreskuratuta: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4745880>
- González-Pienda, J. A., eta Núñez, J. C. (2005). La implicación de los padres y su incidencia en el rendimiento de los hijos. *Revista de psicología y educación*, 1 (1), 115-134. Berreskuratuta: <http://www.revistadepsicologiayeducacion.es/pdf/9.pdf>

- Grañeras, M., Gil, N., eta Díaz-Caneja, P. (2011). Actuaciones de éxito en las escuelas europeas. *Ministerio de Educación*, (9), 5-22. Berreskuratuta: <https://sede.educacion.gob.es/publiventa/PdfServlet?pdf=VP14963.pdf&area=E>
[v](#)
- Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa. (2010). Agur. 2019/03/25ean Berreskuratua: <http://www1.euskadi.net/harluxet/>
- Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa. (2010). Harrera. 2019/03/25ean Berreskuratua: <http://www1.euskadi.net/harluxet/>
- Hernández, M.A., eta Lopez, H. (2006). Análisis del enfoque actual de la cooperación padres y escuela. *Aula abierta*, (87), 3-25. Berreskuratuta: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2583872>
- Herrera, P. M. (1997). La familia funcional y disfuncional, un indicador de salud. *Revista cubana de medicina general integral*, 13 (6), 591-595. Berreskuratuta: http://scielo.sld.cu/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0864-21251997000600013#cita
- Maioli, V. (2006). *Padres e hijos: la relación que nos constituye*. Madril, Espainia: Encuentro.
- Mir, M., Batle, M., eta Hernández, M. (2009). Contextos de colaboración familia-escuela durante la primera infancia. In. *Investigació i Innovació Educativa i Socioeducativa*, 1 (1), 45-68.
- Morrison, G. S. (2005). *Educación infantil*. Madril, Espainia: Pearson Educación.
- Noriega, C., eta Velasco, C. (2013). Relaciones abuelos-nietos: una aproximación al rol del abuelo. *Sociedad y Utopía. Revista de Ciencias Sociales*, (41), 464-482. Berreskuratuta: <https://estaticos.qdq.com/swdata/files/619/619320697/relacionesabuelosnietos.pdf>
- Olshaker, B. (1993). *¿Cómo se lo decimos a los niños?*. Estella, Nafarroa: Médici
- Ormeneze, R. C. M. (2015). *La relación familia y escuela en la educación infantil: oír las voces silenciosas de la historia*. (Tesi doktora). Facultad de pedagogía departamento de didáctica y organización educativa universidad de Barcelona, Bartzelona. Berreskuratuta: <https://www.tesisenred.net/handle/10803/393959>

- Paniagua, G., eta Palacios, J. (2005). *Educación Infantil Respuesta educativa a la diversidad*. Madrid, España: Alianza Editorial.
- Rodríguez, A. (2015-2016). Metodología berritzaileak Haur Hezkuntzan. *Eima katalogoa*.
- Sarramona, J. (2004). Participación de los padres y calidad de la educación. *ESE. Estudios sobre educación*, (6), 27-38. Berreskuratuta: <http://dadun.unav.edu/handle/10171/8576>
- Triadó, C., eta Villar, F. (2000). El rol de abuelo: cómo perciben los abuelos las relaciones con sus nietos. *Revista española de geriatría y gerontología*, 35 (S2), 30-36. Berreskuratuta: http://www.infogerontologia.com/documents/gerontologia/articulos/II_congreso_geront_geriat_cataluna/2000c_rol_de_abuelo.pdf
- Txantxiku Ikastola. (2016). *Hezkuntza Proiektua*
- Unesco. (2004). *Temario abierto sobre educación inclusiva: materiales de apoyo para responsables de políticas educativas*. Orealc. Berreskuratuta: https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000125237_spa
- Valdivia, C. (2008). La familia: concepto, cambios y nuevos modelos. *Revista La Revue du REDIF*, 1, 15-22. Berreskuratuta: https://moodle2.unid.edu.mx/dts_cursos_md/lic/DE/PF/AM/05/cambios.pdf

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: IKASTOLAREN ARGAZKIAK









2. ERANSKINA: METODOLOGIA BERRIAK ETA KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

METODOLOGIA BERRIAK

Denboran aurrera goazenez, hezkuntza arloan zenbait metodologia berritzaile agertu dira eta horietako batzuen helburua eskolan gauzatzen diren harremanak estutzea izan da, hain zuzen ere. Garaiak aldatzen doazen heinean, eskola tradizionalaz gain pedagogia berriak sartu dira gure eskoletan. Hona hemen Rodríguezek (2015-2016, 8orr) hauei buruz dioena:

Pedagogia berriek umea ulertzeko, haren beharrak asetzeko eta hezteko modu ezberdinak erakusten dizkigute. *Berri* erabiltzen da, indarrean dagoen pedagogiarekin alderatuz gero, gutxiengoa osatzen dutelako. Ohiko hezkuntzak dituen gabeziak asetzeko erabiltzen dira. Argi dago eskolaren inguruko eztabaida aspaldikoa dela: zertarako den eskola, gizartean izan behar duen eragina, zelan hezi behar den, ikasleek zer trebetasun bereganatu behar duten... Eta, irakasleen lanari dagokionez, milaka zalantza eta gogoeta egiten dira: betebeharrak egoki burutzen diren, ikasleei dena eginda ematen zaien, autonomia kentzen zaien...

Garaiko korrante pedagogiko ezagunenak eta gehien entzuten direnak hauek dira: Waldorf, Montessori, Wild anaien pedagogia ez zuzentzailea, Sutherland Neillen oinarritutako eskola demokratikoak, Emmi Pikler eta Reggio Emilia. Korrante hauetatik gehienak mundu osoan hedatuta egoteaz gain, zenbait hamarkada dituzte. Eta hauek izaten dira oinarrian izaten dituzten ezaugarriak: Lehenik, umea da ardatza, haurraren garapen naturala, erritmoa eta beharrak errespetatzen dira; bigarrenik, jolas librea ezinbestekoa da, manipulazioari eta esperimentazioari lehentasuna ematen zaie; eta azkenik, mugimendu-askatasuna haurraren eskubidetzat jotzen da (Rodríguez, 2015-2016).

Pedagogia tradizionalei eutsiz, Anterok (2015) pedagogia tradizionalak ez dituela pertsonaren garapenaren legeak errespetatzen eta gure ikasleak egungo eta etorkizuneko beharretarako prestatzen dio. Baina, "benetako eskola berria eta sasi-eskola berria ezberdindu behar dira. Noizean behin proiektuka edo txokoka lan egiteak ez du eskola bat berri bihurtzen" (Rodríguez, 2015-2016, 8 orr). Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi orokortu egin behar dugunik eta pedagogia berritzaileak ez diren hezkuntza proposamen guztiak baztertu behar ditugunik. Eskola onak badaude, baina, hezkuntza arautuaren barruan ere eredugarriak diren asko daude. Azken urteotan, gainera, Euskal

Herriko eskola publiko batzuetan lan-eredu ezberdinak jorratzen hasi dira (Rodríguez, 2015-2016).

Halaber, gure kulturaren ez dira oso ohikoak adin desberdinetako haurrak gela beretan elkartzea, horrelakoak normalean herriaren beharra dela eta izaten dira. Hau horrela, taldeak homogeneoak direla esaten da, hau urte berean jaiotako haurrek osatzen dutenean. Espainian haur bat zein taldetan eskolaratu behar den erabakitzeko abenduaren 31ean duen adina hartzen da kontutan. Hau horrela, gela edo talde berean daude urte bereko urtarrilaren 1ean eta abenduaren 31ean jaio diren haurrak. Honek dibertsitatea sortzen du gelan, kronologikoki urte bateko aldea dutelako. Kasu hauetan normalean txikienek ez dituzte haien beharren erantzun guztiak aurkitzen gelan, eta notak edo informeak ez dira zaharrenek izaten dituzten besteko onak, ezarritako helburuak betetzen ez dituztelako. Eskola batzuek jaiotako uneak ere errespetatzen dituzte, hau da, damagun bi urteko gelan bi talde daudela, jaio diren ordenaren arabera sailkatzen dituzte. Modu honetan, gela bat bi urteko zaharrenek gela eta bestea bi urteko haur gaztetxoek gela bihurtuz. Hau, bizitzako lehenengo urteetan desberdintasunak handiagoak direlarik, ideia ona da. Hala eta guztiz ere, dibertsitatea zerbait txar bezala ikusteari utzi behar diogu eta dibertsitatea aprobetxatu behar dugu, guztiontzako zerbait aberasgarri moduan ikusiz (Paniagua eta Palacios, 2005).

KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

Lehenago aipatu bezala, zenbait pedagogia berritzailek harremani izugarriko garrantzia ematen diete, horietako bat da Konfiantzaren Pedagogia eta lehenago aipatu bezala, lan hau aurrera eramateko eta harremani buruzko burutu diren behaketak egiteko erabili den Ikastolak metodologia hau erabiltzen du. Gainera, pedagogia honek eskolako pertsona guztien artean (familia, irakasleak, haurrak, etab.) konfiantza egon behar dela bultzatzen duenez, eskolako harrera eta agur momentuak hauek ikusteko momentu bikaina bilakatzen ditu.

Pedagogia honen oinarrian Amaia Antero, Arizmendi ikastolako zuzendari pedagogikoa dago. Ikastolaren ikerketa, garapen eta berrikuntza jardunaren arduraduna da. Pedagogia honi buruz jarduteko bere *Konfiantzaren pedagogia Arizmendi ikastolaren markoa* (Antero, 2005) izeneko liburua hartu da oinarritzat:

“Konfiantzaren pedagogian oso garrantzitsua da gure ikasleengan autokonfiantza eta inguruarekiko konfiantza lantzea, irakatsi eta ikasteko

prezesua egokia, atsegina eta arrakastatsua izan dadin” (Antero, 2015, 9 orr).

Anterok (2015) konfiantza eskolan eta hezkuntzan ezinbestekoa dela dio, honek segurtasun afektiboarekin baitu zerikusia. Behar dugunean hor dagoen pertsonarengan dugu konfiantza, gure argi-ilunekin maite gaituen horrengan eta gudan sinesten duen horrengan. Anteroren helburu nagusia haur edota gazte bakoitzak bere buruarengan eta besteengan eta inguratzen dutenengan konfiantza izatea lortzea da, hots, bere burua eta gainontzekoenak baliotsutzat jotzea. Modu honetan soilik lortuko du, bere gaitasunak deskubritzeko, garatzeko eta zoriontsu izateko prest egotea. Alderantziz ere gertatzen da, bakoitzak bere gaitasunak ezagutu eta bizitzetik dator konfiantza. “Zerbaitetan edota norbaitengan konfiantza izateko, zertan fidatua izan behar dugu, zerbait ikusi behar dugu ona, baliozkoa... konfiantza ez da airean eraikitzen, sendotasuna ematen duen oinarri batean baizik” (Antero, 2015, 8-9 orr).

Bestalde, irakasleek nekez landuko dituzte haurren gaitasunak, beharrak, zailtasunak eta ametsak, haienak deskubritzen ez dituzten artean. Pedagogia honetan haurrekin proposatzen den ezagutza eta esku-hartzea norberaren buruarekiko esku-hartzetik hasten da. “Gure gaitasunekin, beharrekin, zailtasunekin eta ametsekin jaikitzen, bizitzen eta oheratzen gara egunero” (Antero, 2015, 13 orr).

Horrekin batera, testuinguru osasungarri bat izateko lehenengo baldintza komunitatearekin lotura egitea da, familia eta gizartea lotzeko, denen artean konfiantza sustatzeko eta haurrak konfiantza giro horretan hezteko. Hezitzaileek eta gurasoek konfiantzan oinarritutako begirada garatu behar dute, konfiantzazko harremana, konfiantza transmititzen duen ingurua. Konfiantza zertan? Norberaren gaitasunean, ahalmenetan eta besteengan. Irakatsi eta ikasteko prozesua arrakastatsua izan dadin, aurretiaz eta ezinbestean bermatu beharreko baldintza da konfiantza. *“Planteamendu arkitektonikoak planteamendu pedagogikoari erantzun behar dio, eta ez alderantziz”* (Antero, 2015, 86 orr).

3. ERANSKINA: ERREGISTRO ORRIA

- | | |
|--------------------------|------------------------|
| A) 1. Haurra (mutikoa) | AA) A Haurraren amona |
| B) 2. Haurra (mutikoa) | BB) B Haurraren ama |
| C) 3. Haurra (mutikoa) | CC) C Haurraren ama |
| D) 4. Haurra (mutikoa) | DD) D Haurraren aita |
| E) 5. Haurra (mutikoa) | EE) E Haurraren ama |
| F) 6. Haurra (neskatoa) | FF) F Haurraren aitona |
| G) 7. Haurra (mutikoa) | GG) G Haurraren amona |
| H) 8. Haurra (neskatoa) | HH) H Haurraren ama |
| I) 9. Haurra (neskatoa) | II) I Haurraren ama |
| J) 10. Haurra (mutikoa) | JJ) J Haurraren ama |
| K) 11. Haurra (mutikoa) | KK) K Haurraren aita |
| L) 12. Haurra (mutikoa) | LL) L Haurraren ama |
| M) 13. Haurra (neskatoa) | MM) M Haurraren amona |

HARRERAK

IRAKASLE-HAUR		EMAITZA
AGURTU (Irakasleak haurra)	A B C D E F G H I J K L M	13/13
BESARKADA (Irakasleak haurrari)	F M B H D I	6/13
MUXUA (Irakasleak haurrari)	C F J L M K B	11/13

	H A D I	
ESALDIREN BAT ESAN (Irakasleak haurrari)	G: “ aiba, erori egin zinen atzo” (aurpegia markaz beteta du haurrak) C: “aiba ze pozik zatozen” F: “zorionak polita” (gaur bere urtebetetze eguna da) J: “aiba! Kolorea hartu duzu” (Lanzaroten egon da oporretan) M: “zer moduz amapola?” K: “beno zer ekarri duzu gaur?” (haurrak Pirritx eta Porrotxen ipuin bat ekarri du) H: “baina ze pozik zatozen gaur” A: “perezarrekin zatoz baina...” E: “aiba ilea moztu duzu, ze guapo”	9/13
ARRETA ESKEINI MINUTU BATZUETAN (Irakasleak haurrari)	G C: irakaslea belauniko jarri da berarekin gaurko egunari buruz hitz egiteko F: bi urte bete ditu gaur haurrak eta horri buruz aritu dira hizketan J: oporrei buruz aritu dira I: haurrari gaur egingo duguna azaldu dio M B H A: haurra oso mimoso dago eta irakasleak zer egingo dugun esaten dio lasaiago geratzeko D: haurrari geratzea kostatzen zaio, gosalduta Gabe etorri da eta jan egingo dugula esan dio irakasleak I: arreta eskaintzen dio haurra lasaiago gelditzeko	11/13
GALDERAK EGIN (Irakasleak haurrari)	G : “ongi egin duzu lo?” C : “haserre zatoz ala?” F: “gero zorionak zuri abestea nahi duzu?” J: “Ondo pasatu duzu oporretan?; zer moduz hegazkinean?; eta orain, pozik zatoz ikastolara?” M: “gero arratsaldean amatxorekin egongo zara ezta?” (normalean amak lan egiten du arratsaldetan beraz, ez ohiko zerbait da) M: “zer moduz egin duzu lo?” B: “zer moduz egin duzu lo?”	9/13

	D: (haurra gosaldu Gabe etorri da) “gosea duzu?” E: “zer moduz zaude?”	
EGUNEAN ZER EGINGO DUGUN AZALDU (Irakasleak haurrari)	G: “orain jolastera goaz eta gero ogia jango dugu bazatoz?” C F: “gero zorionak zuri abestu, koroa jarri eta jolastu egingo dugu” I A	5/13
GAINERAKO HAURRENGANA ERAMAN (Irakasleak haurra)	F J L A	4/13

GURASO/AITONA-AMONA-HAUR		
GELAN SARTU (Guraso/aitona-amonak)	CC ama GG amona FF aitona JJ ama LL ama MM amona KK aita BB ama HH ama AA amama DD aita EE ama II ama	13/13
HAURRA AGURTU (Guraso/aitona-amonek)	CC ama GG amona FF aitona JJ ama LL ama MM amona KK aita BB ama HH ama AA amama DD aita EE ama II ama	13/13
MUXUA (Guraso/aitona-amonek haurrari)	CC ama GG amona FF aitona JJ ama	13/13

	LL ama MM amona KK aita BB ama HH ama AA amama DD aita EE ama II ama	
ITZULIKO DELA ESAN (Guraso/aitona- amonek haurrari)	CC ama GG amona FF aitona JJ ama LL ama MM amona KK aita BB ama DD aita EE ama II ama	11/13
BILA NOR ETORRIKO DEN ESAN (Guraso/aitona- amonek haurrari)	CC ama: "Gaur nor dator bila?" galdetu dio semeari, eta semeak amama esan du. Amak orduan ezetz gaur amatxo joango zaiola bila esan dio. GG amona: (haurra ez da oso pozik geratu ikastolan) "maitea orain joan lagunekin jolastera, nik ogia erosi behar dut eta gero etorriko naiz berriz" FF aitona: gero ni etorriko naiz bila eta amonarengana joango gara bazkaltzera JJ ama: "segidan etorriko naiz berriz hona, ongi pasa maitea" MM amona: "luego vendre yo y vamos a ir a casa del aitaita" II ama	6/13
LEHENENGO IRAKASLEARI KASU (Guraso/aitona- amonek)	CC ama: lehenengo irakasleari haurrak jantzita zeraman prirritx eta porrotxen kamiseta kendu ezin diola esan dio, burugogor hutsa dela semea eta lo ere kamisetarekin egin duela. FF aitona: irakasleari: "gaur lehen aldiz nik jarri diot faldela, beraz ez dakit nola izango duen". JJ ama: lehenengo irakasleari azaldu dio oporretan nola ibili diren. LL ama: haurra ez dabilela oso ongi jaten azaldu dio irakasleari HH ama: "bihar ez da etorriko medikua daukagu eta" DD aita: gosalduta Gabe dator orain esnatu da eta	6/13
LEHENENGO HAURRARI KASU ETA ONDOREN IRAKASLEARI	GG amona: lehenengo haurrari ikastolan geratu behar dela azaldu dio. Eta ondoren irakasleari, atzo erori egin zela azaldu eta nola egin duen lo kontatu dio.	7/13

(Guraso/aitona- amonek)	MM amona KK aita BB ama AA amama EE ama II ama	
----------------------------	---	--

AIPATZEKOAK
Helduak gelara haurrekin sartu aurretik haurra aldatzen dute eta oinetan plastiko batzuk jartzen dituzte zapatekin lurra ez zikintzeko.

IRAKASLE- GURASO/AITONA AMONA		
AGURTU (irakasleak guraso/aitona- amonak)	CC ama GG amona FF aitona JJ ama LL ama MM amona KK aita BB ama HH ama AA amama DD aita EE ama II ama	13/13
GALDERAK EGIN (irakasleak guraso/aitona- amonei)	GG amonari irakasleak: "ondo egin du lo?" FF aitonari : "ia guztiz osatuta dago?" (pasaden astean gaixo egon zen neskkatoa) CC amari : Semea nola dagoen galdetu dio, aurreko egunetan haserre ibili da eta JJ ama : "ondo pasatu duzue oporretan?; ondo ibili da umea?" MM amona : "todavía sigue con el jarabe?" KK aitari : "ondo egin du lo?" AA amonari : "ongi egin du lo?" EE amari : "zer moduz doaz puntuak?" (haurra erori egin zen etxean eta begi ondoan lau puntu ditu) II ama : "ondo egin du lo?"	9/13
ELKARRIZKETA BAT MANTENDU (irakasleak guraso/aitona- amonekin)	GG amonarekin : gurasoen lanari buruz hitz egiten aritu dira CC amarekin : haurraren kasketei buruz aritu dira, bitartean haurra jolasean JJ amarekin : oporrei buruz LL amarekin : janariari buruz, haurrak ez du lehen bezain ongi jaten orain	11/13

	<p>MM amonarekin: haurraren katarroari buruz aritu dira</p> <p>KK aita</p> <p>BB amarekin: haurdun dago eta nola dagoen galdetu dio irakasleak.</p> <p>HH ama: haien gauzei buruz, koadrilakoak dira eta</p> <p>DD aitarekin: gaur gosaldu gabe datorrela esan eta janariari buruz aritu dira</p> <p>EE amarekin: haurrak buruan dituen puntuei buruz</p> <p>II amarekin: azkenaldian haurra asko askatu dela esan dio</p>	
<p>HAURRARI BURUZKO INFORMAZIO TRUKAKETA</p> <p>(irakasleak guraso/aitona- amonekin)</p>	<p>GG amonarekin: gaua nola pasatu duen</p> <p>FF aitona: gaua nola pasatu duen azaldu dio eta oraindik antibiotikoarekin bukatu ez dutela azaldu dio</p> <p>CC amarekin: haurra etxean eta ikastolan berdin ibiltzen dela aipatu dute</p> <p>JJ ama: haurra ondo dagoela azaldu dio</p> <p>LL amarekin: nahiz eta oso ongi ez jan haurra ondo dagoela hitz egin dute</p> <p>MM amona: ondo egin duela lo, atzo bi orduko siesta egin zuela eta ez duela jarabearen beharrik azaldu dio.</p> <p>KK aitarekin: loari buruz</p> <p>BB amarekin: siestei buruz</p> <p>HH amarekin: bihar medikua duela aipatu dute</p> <p>AA amamarekin: loari buruz</p> <p>DD aitarekin: haurra jangelan ez dela gustora egoten</p> <p>EE amarekin: loa eta janaria</p> <p>II amarekin</p>	13/13
<p>BILA NOR ETORRIKO DEN GALDETU</p> <p>(irakasleak guraso/aitona- amonei)</p>	<p>JJ amari: "gaur orduan betiko orduan etorriko zara zu?"</p> <p>DD aitari</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Askotan ez du galdetzen beti berdina etortzen delako 	2/13
<p>AGENDA BEGIRATU</p> <p>(Guraso/aitona- amonek)</p>	(normalean etxean begiratzen dute)	0/13
<p>LEHENENGO HAURRA AGURTU</p> <p>(irakasleak)</p>	<p>CC ama</p> <p>GG amona</p> <p>FF aitona</p> <p>JJ ama</p> <p>LL ama</p> <p>MM amona</p> <p>KK aita</p> <p>BB ama</p> <p>HH ama</p> <p>AA amama</p> <p>DD aita</p> <p>EE ama</p> <p>II ama</p>	13/13
<p>LEHENENGO GURASOA AGURTU</p>		0/13

(irakasleak)		
--------------	--	--

AGURRAK

IRAKASLE-HAUR		
AGURTU (Irakasleak haurra)	J L C M K B A D E I	10/13
BESARKADA (Irakasleak haurrari)	J M	2/13
MUXUA (Irakasleak haurrari)	J L C M B I	6/13
ESALDIREN BAT ESAN (Irakasleak haurrari)	F: "baserrira zoaz bazkaltzera? Ze ongi eta Argirekin (txakurra) jolastuko duzu?" J: "on egin orain eta ondo pasatu gero lehengusuaren merendolan" I: "ongi jan orain amonaren etxean ee..." C: "orain egin lo egun guztian ez duzu eta egin eta nekatuta zaude" M: "agur! gero egongo gara" K: "bihar arte ondo egin lo orain" B: "ongi ongi bazkaldu orain e" A: "Bihar arte!"	8/13
ARRETA ESKEINI MINUTU BATZUETAN (Irakasleak haurrari)		0/13

GURASO/AITONA AMONA-HAUR		
GELAN SARTU (Guraso/aitona- amonak)	FF CC KK BB	8/13

	AA DD EE II	
HAURRA AGURTU (Guraso/aitona- amonek)	FF LL CC MM KK BB AA DD EE II	10/13
MUXUA (Guraso/aitona- amonek haurrari)	FF LL CC MM KK BB AA DD EE II	10/13
ZER MODUZ IBILI DEN GALDETU (Guraso/aitona- amonek haurrari)	FF CC MM KK BB AA DD EE II	9/13
LEHENENGO IRAKASLEARI KASU (Guraso/aitona- amonek)		0/13
LEHENENGO HAURRARI KASU ETA ONDOREN IRAKASLEARI (Guraso/aitona- amonek)	CC ama GG amona FF aitona JJ ama LL ama MM amona KK aita BB ama HH ama AA amama DD aita	13/13

	EE ama II ama	
--	--------------------------------	--

IRAKASLE- GURASO/AITONA AMONA		
AGURTU (Irakasleak guraso/aitona- amonei)	FF CC MM KK BB AA DD EE II	9/13
GALDERAK EGIN (Guraso/aitona- amonek irakasleari)	CC: “ongi ibili da?” MM: “como ha estado? A tosidido mucho?” BB: “egin du kaka?” AA: “Ongi ibili da?” DD: “jan du zerbait?” EE: “kexatu da puntuez?”	6/13
ELKARRIZKETA BAT MANTENDU (Irakasleak guraso/aitona- amonekin)	FF: “amatxo gaur pixka bat revuelto gaude eh, koxka eta koxka aritu da” LL amarekin: “hasieran ez zuen bazkaltzerik nahi baina guztia jan du azkenean” BB: siestarik egin ez duela esan dio amari DD: haurrak azkenaldian ez duela apetitorik aipatu dute EE: haurra oso ongi ibili dela esan dio II: “oso gustora eta pozik aritu da”	6/13
HAURRARI BURUZKO INFORMAZIO TRUKAKETA (Irakasleak guraso/aitona- amonekin)	FF: kaka bi aldiz egin duela esan dio LL ama: bazkariari buruz aritu dira KK aita: ondo ibili dela esan dio BB: siestarik egin ez duela esan dio amari eta kaka ere ez AA DD EE: kaka egin duela esan dio II	8/13
AGENDA BEGIRATU (Guraso/aitona- amonek)	FF	1/13